



**Itsaso FAGOAGA**  
Europako Skeet  
Olinpikoan laugarren  
→ 60

## Herriko bestak

Bera, Beintza-Labaien, Gaztelu, Ziga, Leitza, Sunbilla...

## SUNBILLA → 40

N-121A moztuko dute berriz abuztuaren 5ean

## GOIZUETA → 49

Udalak baso-biomasa ekoizteko eskatu du

## BAZTAN → 54

Nafarroako Herriarteko Pilota Txapelketan irabazle

## URDAZUBI → 55

Burdinaren Eguna eta Pilotaren Unibertsoa

## Nafarroako Herri Kirol Txapelketetan lau txapel eskuratu dituzte Sunbilla, Igantzi, Ituren eta Berako kirolariek

Unai Bertiz sunbildarra harriarekin nagusitu da, Xabi Sein igantziarra lasto altxatzen, Joakin Aioroa iturendarra ingudearekin eta Joseba Petrirena beratarra gurdiaekin. Argazkian, ezkerretik eskuinera, Karlos Sein, Joakin Aioroa, Xabi Sein eta Josetxo Urrutia.

KIROLA → 61



Udan ez da eskolarik izaten baina hori ez da aitzakia uztailean edo abuztuan bertze gisa bateko jarduera edo ikastaroetan apuntatu eta lagunekin aski ongi pasatzeko. Batzuk herrian bertan antolatzen dira baina badira kanpora joaten direnak ere.

ERREPORTAJEA → 4-5



## Neska-mutikoen artean estimu haundia dute udarako prestatutako jarduerak

Iñaki DIEGEZ | *Cirque du Soleil*-ekin biran AEBetan eta Kanadan

«Astean 9-10 show egiten ditugu asteartetik igandera eta 25.000 lagun etortzen dira ikustera»

Doneztebeko Musika Eskolan eszedentzia hartu eta akordeoiarekin *Cirque du Soleil*-ekin parte hartzen dabil. «Esperientzia oso ona da —dio Iñakik— bai tokiak ezagutzeko eta bai ingeles pixka bat ikasteko».

ELKARRIZKETA → 3



ZOZKETA → 67

TTIPI TXARTELArekin beti irabazten da!



**Martiko**<sup>®</sup>  
Keztatuak

Martiko Pol. Zalain, s/n  
31780 Bera. Nafarroa.  
Tel: 948 625156 Fax: 948 625157  
www.martiko.com



**B E S T A O N A K P A S A !**



Ahatekietan adituak  
eta arituak

Martiko Pol Zalain, s/n.  
31780 Bera. Nafarroa  
Tel: 948 625016 Fax: 948 625036  
www.martiko.com



**Z O R I O N A K !**

**VENTA**  
**PEIO**<sup>®</sup>

Venta Peio  
Ibardingo gaina. Ibardin.  
Tel. 902 210 800  
www.venta-peio.com



9 urterekin hasi zen Iñaki Diegez akordeoiarekin, eta geroztik, diskak atera, talde ezagunetan parte hartu eta etxean zein nazioartean sari andana lortu ditu. Duela urte batzuk, Do-

neztebera ailegatu zen, eta azken aldian, Agorreta Musika Eskolako akordeoi irakaslea da. Mendi Abesbatzaren sortzaileetako bat ere izan zen, baita bortsu urte zuzendaria ere. Eta

orain, eszendentzia hartuta, 2009ko apiriletik, AEB eta Kanadan dabil, *Cirque du Soleil*en oVo ikuskizunean akordeoiaren doinua sartuz. 2011eko ekainera arte ibiliko da kanpoan.

Iñaki DIEGEZ | Doneztebeko Agorreta Musika Eskolako akordeoi irakaslea

# «Nire *hobby* honetatik nire lanbidea egiteko aukera izan dut»

G. PIKABEA | DONEZTEBE

## Zein ibilbide egin duzu akordeoiarekin?

Profesionalki lehen urratsak akordeoi klasikoarekin egin nituen. Hiru diska atera nituen, eta kontzertu asko eman nituen, bai inguruan, eta bai Europan ere. Urte batzuk pasatu eta gustorago sentitzen nintzen beste musika mota batzuk eginez: Jazz, Folk, Rock... Beraz, klasikoa alde batera utzi eta ildo honi jarraituz bestemusikari batzuekin jotzeko aukera izan nuen, eta hori dela eta, herriz herri asko mugitzen hasi nintzen. Honen jende asko ezagutzeko aukera eman zidan, eta bide batez, oso musikari ezagun eta onekin egoteko aukera. Nire *hobby*tik nire lanbidea egiteko aukera izan dut.

## Nola ailegatu zinen Doneztebera?

Ikasketak amaitu eta urte gutxira, Doneztebeko akordeoi irakasle lanpostua atera zuten, eta oposaketak gainditu ondoren, lanpostua lortu nuen. Hasierako urte haietan lan ikaragarria egin genuen irakasle ginenok eta garai hartako gurasoek. Guztiok, Udalaren babesarekin, eskola ona eraikitzea lortu genuen. Harro sentitzen naiz lan horretan parte hartu izanaz.

## Nolatan sortu zitzaizun *Cirque de Soleil*ekin AEB eta Kanadara joa-



UTZITAKO ARGAZKIA

Iñaki Diegezentzat esperientzia aberasgarria izaten ari da *Cirque de Soleil*ekin parte hartzea.

## teko aukera?

Akordeoiarekin niretzako berriak diren bideak jarraitu nahian nabil beti. Hasiera batean, ordezkapen bat egiteko deitu zidaten, eta hori egin ondoren, etxera bueltatu nintzen esperientzia amaitutzat emanez. Bi hilabetez Euskal Herrian egon nintzen, eta Igor Telletxearekin, Pantxoa ta Peioren diska-karen produkzioa egin, eta zenbait kontzertu eman nituen. Bigarren aldiz deitu zidaten Montrealetik (Kanada), *Cirque du Soleil*en proiektu berri batean parte hartzeko. Ka-

## LAN ABERASGARRIA

«Bigarren aldiz deitu zidaten Montrealetik, *Cirque du Soleil*en proiektu berri batean parte hartzeko. Kasu honetan, nire lana akordeoiarekin doinua ikuskizunean sartzea zen. Lan interesgarria iruditu zitzaidan, musika horrek, nahiz eta ni hemen ez egon, urte askoz jarraituko baitu, eta nolabait nire jotzeko era hor geldituko baita»

su honetan, nire lana akordeoiaren doinua ikuskizunean sartzea zen. Lan interesgarria iruditu zitzaidan, musika horrek, nahiz eta ni hemen ez egon, urte askoz jarraituko baitu, eta nolabait nire jotzeko era hor geldituko baita. Dena azkar gertatu zen eta ia agur esateko denborarik gabe bueltatu nintzen Kanadara. Zer moduz egokitu zarete zu eta zure familia bizimodu berrira?

Bigarren aldi honetan, bi urterako proiektua zenez, familiarekin etortzea erabaki genuen. Oso gustu-

ra dabilta, esperientzia oso ona da, bai tokiak ezagutzeko eta bai ingeles pixka bat ikasteko.

## Nolakoa izaten da zure lana?

Hasierako hilabeteetan, Montrealen ikuskizuna montatzen egon ninen. Niri akordeoi musika zatiak egokitzea tokatu zitzaidan. Gaur egun, astean 9-10 show egiten ditugu asteartetik igandera eta astero 25.000 lagun etortzen dira.

## Turismoa egiteko astia izaten al duzue?

Zirkoa herri batetik bestera mugitzen den bitartean, astebeteko atsedenaldia izaten dugu. Etenaldi horiek aprobetxatzen ditugu turismoa egiteko, astez ez baitugu denbora askorik. Martxoan, adibidez, etenaldi bat aprobetxatuz, Pantxoa ta Peiorekin Kalifornian pare bat kontzertu egiteko aukera izan nuen. Chinoko eta San Frantziskoko Euskal Etxeetan euskaldun asko ezagutu nituen. Hauetako asko Bidasoaldekoak, eta Doneztebeko ikasleen familiakoak ere aurkitu nituen, baita akordeoilariak ere!

## Bueltatzen zarenerako, ba al duzu proiekturik?

Crossing Time diska orain dela hiru urte egin nuen, eta horrekin oso gustura ibili nintzen kontzertuak emanez. Bueltan, diska berri bat ateratzea gus-tatuko litzaidake.



Baztango gaztetxoak errekan jolasean.



Sunbillako haurrak begiraleekin.



Berako udalekuetan, margotzen.



Goizuetako neska-mutikoak marrazketa tailerrean.

AISIALDIA → UDAKO OPORRALDIAK

# 3-14 urteko eskualdeko 570 haurrek baino gehiagok udalekuetan pasako dute uda

Urtetik urtera gero eta gehiagok ematen du izena

Eskolako oporrak hartu orduko neska-mutikoez oporraldiez gozatzeko dituzten aukerak hainbat dira. Eta udalekuak eta ikastaroak horretarako aproposak izan daitezke.

Gure eskualdeko herri gehienetan horiek izaten dira haurren aisialdirako erarik erabilienak. Herriz herri egiten diren eskaintzek gero eta harrera hobea dute, gainera.

## G. PIKABEA

Bertso udalekuak, hizkuntzak lantzeko udalekuak, musika edo kirola egiteko ikastaroak, udaleku irekiak zein itxiak... Zaletasun eta adinarean arabera, aukera anitza da. Eta orain, uztailean sartu-

ta, bete-betean topatu ditugu neska-mutikoak udalekuetan. Ez gutti gainera. Bildutako datuen arabera, 571 gaztetxok eman dute udalekuetan izena Baztan, Bortziriak, Bertizarana, Leitzaldea, Malerreka eta Xaretan.

**Baztanen**, udaleku irekiak eta itxiak. Bietarako aukera eskaintzen du Udal Euskara Zerbitzuak, Goina lehenak izaten dira estimatuenak. Hiru txandatan ari dira egiten: bi Elizondan eta hirugarrena Erratzun.

**Bortzirietan**, arrakastatsuak izaten dira antolatzen diren udaleku irekiak. Baina aurten inoizko haur kopururik haundiena dabil bortz herrietako udalekuetan: 158.

**Leitzaldea**. Leitzan, astebeteko lau txandatan banatuta egiten dute, eta hartara, bakoitzean arlo diferenteak lantzeko aukera dute: natura, sukaldea, birziklapena, sormena... Deialdiaren harrera ona ikusita, aurrekusi baino bi begirale gehiago hartu behar izan dituzte aurten. Areson, aurten berrikuntza batekin etorri dira gurasoak. Orain arte, Guraso Elkartek Haur Txokoa antolatzen zuen, eta Euskara Zerbitzuak diruz lagundu. Aurten, ordea, kirol jarduerak antolatu dituzte, Kirol Mankomunitatetik bideratuta. Eta Goizuetan, ikastaroen aldeko apustua egin dute: marrazketa eta eskulabak, informatika tailerra eta Hernaniko igerilekue-

tara ateraldiak.

**Mallerreka**. Zubietan, oraingoan, uztailean akitu izanen da ludoteka, baina baliteke abuztuan ere egitea, iaz lehen hamabortzaldian halaxe egin baitzuten. Sunbillan, berriz, hirugarrenez antolatu dute ludoteka, eta egunero Beheko Eskolako goiko solairuan biltzen dira goizak modu dibertigarrian pasatzeko. Eta Donezteben, Erreka Elkartearen ekimenez, kirola egiteko elkartzen dira astean hiru egunez gaztetxoak. Aurten hamar garrenez egiten ari dira.

**Xareta**. Urdazubi eta Zugarramurdin, bertze alor aunitzetan bezala, udalekuak ere elkarrekin egiten dituzte. Baina aurtengoak eman du berea, akitu baitira. Eta Saran, ikasturte osoan egiten duten Haur Bilgunearekin segitzen dute udan. Euren jardueren artean, aipagarriena Maulen egiten duten bortz eguneko egonaldia da.

**BAZTAN**

## Udalekuak 3 txandatan banatuta

- 3-12 urteko haurrak.
- Hiru txanda eginen dira: Elizondo (uztailaren 5etik 16ra); Erratzu (uztailaren 19tik 30era) eta Elizondo (abuztuaren 2tik 13ra).
- 77 haur apuntatu dira. Lehen txandan 12 –batez ere Elizondokoak–; bigarrenean 26 –Erratzu, Arizkun, Irurita, Amaiurkoak...–. Eta hirugarrenean 39 –Elizondokoak gehienak–.
- Lau begirale baztandar ari dira lanean.
- Astelehenetik ortzirale-  
ra 10:00etatik 13:00etara elkartzen dira.
- Udal Euskara Zerbitzuak antolatzen dute.
- Finantziazioa: zati bat Udalak eta gainerakoa gurasoek.

**BORTZIRIAK**

## Inoizko haur kopururik haundiena

- 3-12 urteko haurrak.
- Bortz herrietan egiten ari dira. Arantzan, Beran, Etxalarren eta Igantzin uztailaren 5etik 30era. Eta Lesakan, hila-  
ren 12tik abuztuaren 6ra.
- 158 haur daude apuntatuak. 24 Arantzan; 49 Beran; 32 Etxalarren; 13 Igantzin eta 38 Lesakan.
- 18 begirale ari dira lanean: 5 Beran; 4 Lesakan eta Etxalarren; 3 Arantzan eta 2 Igantzin.
- Astelehenetik ortzirale-  
ra, 10:00etatik 13:00etara elkartzen dira.
- Bortziritako Euskara Mankomunitateak eta Dindaia Fundazioak antolatzen dute.
- Finantziazioa: Euskara Mankomunitateak eta gurasoek.

**MALERREKA**

## Ludoteka edo kirola, herria- ren arabera

**DONEZTEBE**

- 8-14 urteko haurrak.
- Uztailaren 12tik abuztuaren 6ra.
- 45 haur apuntatuak.
- Begirale bakarra.
- Astean hiru egunez, hiru taldetan banatuta: 10:00-11:00; 11:00-12:00 eta 12:00-13:00.
- Erreka Kirol Elkarteak da aurrean hamargarren aldiz Udako Kirol Eskola antolatu duena.

**SUNBILLA**

- 2-6 urteko haurrak.
- Ekainaren 28tik uztailaren 30era.
- 19 haur apuntatuak.
- Herriko bi begirale ari dira lanean.
- Astelehenetik ortzirale-  
ra 09:00etatik 13:00etara biltzen dira.
- Guraso Elkarteak antolatu, eta apuntatzen direnek ordaintzen dute.

**ZUBIETA**

- 3-6 urteko haurrak.
- Uztailaren 1etik 30era. Baliteke abuztuan ere egitea.
- 10 haur apuntatuak (3-4 Doneztebeko igeriketa ikastaroa akitutakoan hastekoak dira)
- Bi begirale dituzte, Zubieta eta Iturengoak.
- Astelehenetik ortzirale-  
ra, 09:30etik 12:30era elkartzen dira.
- Herriko neska batek antolatzen du. Haur Hezkuntza ikasten ari zela, praktika gisa ongi zetorkiolako hasi zen duela bi urte, eta gurasoen aldetik erantzun ona izan zuen. Aurten ikasketak akitu arren, aurreko bi urteko esperientzia ona errepikatu nahi izan du.
- Ordainketa osorik gurasoek egiten dute. Baina Udalak eskolako behoko solairua uzten die ludoteka egiteko.

**LEITZALDEA**

## Herri bakoitzak bere eskaintza

**LEITZA**

- 3-6 urtekoentzat Haur Txokoa eta 6-12koentzat Udako Tailerrak.
- Uztailaren 5etik 30era astebeteko lau txanda, bakoitzean arlo diferenteak lantzeko.
- 101 haur apuntatuak.
- 4-5 begirale.
- Astelehenetik ortzirale-  
ra 09:00-13:00 edo 10:00-13:00.
- Udalak, Euskara Mankomunitateak eta Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak antolatu eta Dindaia Fundazioak kudeatutakoa.

**GOIZUETA**

- 3-14 urteko haurrak.
- Hainbat ikastaro antolatu dituzte: igeriketa uztail osoan (10:15-12:45); informatika uztaila-  
leko astelehen eta asteazkenetan goizez; marrazketa eta eskulana-  
k uztaila-  
leko astearte eta ostegunetan 11:00-12:00; 12:00-13:00 edo 13:00-14:00.
- 45 ume apuntatu dira: 27 igeriketan; 14 informatikan eta 23 eskulan eta marrazketan.
- Gurasoek antolatzen dute, eta Guraso Elkarte-  
teko partaide direnei deskontua egiten zaie.

**ARESO**

- 6-11 urteko haurrak.
- Uztail osoan ariko dira. Asteazkenetan herri-  
tik kanpo ateraldiak egiten dituzte.
- 14 haur apuntatu dira.
- Begirale bakarra dute.
- Astelehenetik ortzirale-  
ra 11:30etik 13:00etara elkartzen dira.
- Kirol Mankomunitateak antolatu du. Finantzi-  
zioaren zati bat gurasoek egiten dute eta bertzea Kirol Mankomunitateak eta Nafarroako Gobernuak.

**XARETA**

## Urdazubi- Zugarramurdi eta Saran

**SARA**

- 3-12 urteko haurren-  
tzat Haur Bilgunea. Tti-  
kiagoentzat Haurtzain-  
degia ere aukeran.
- Ikasturte osoan egiten den Haur Bilgunearekin segitzen da udan. Uda-  
ko eskaintza uztailaren 5etik abuztuaren 20ra.
- 50 haur hartzen ahal dituzte gehienez. Egu-  
naren eta jardueraren arabera, neska-mutiko kopurua aldatzen da.
- Bortz animatzaile dira.
- Herriko Etxeak duela bi urte hartu zuen ardu-  
ra, ordua arte Larrun Ttiki elkarteak kudeatu-  
ten.
- Haur Bilgunearen ordu-  
tegia 07:30-18:30; Haur-  
tzaindegia 07:30-09:00/16:30-18:30.
- Herri-  
tik kanpo bortz eguneko egonaldia egiten dute Maulen.
- Ordainketa gurasoek egiten dute.

**URDAZUBI ETA  
ZUGARRAMURDI**

- 3-14 urteko haurrak.
- Ekainaren 29an hasi eta uztailaren 16an akitu ziren.
- 22 haur elkartu dira.
- 2-3 begirale eduki dituzte.
- Astelehenetik ortzirale-  
ra 11:00etatik 13:00etara bildu dira.
- Egunaren eta jardue-  
ren arabera, bi herrietan txandakatu-  
z gaindituzte goizak.
- Aurtengoa hirugarren edizioa izan da.
- Guraso Elkarteak da guztiaren arduraduna, eta gastuen zati haundiena ere berak ordaintzen du. Hortik aparte, familia bakoitzak bere zatia ordaindu behar izan du. Eta Urdazubi eta Zugarramurdiko eskoletan ez dauden neska-mutikoek gehiago.

**BAZTAN, BERTIZARANA ETA MALERREKAN**

## Udaleku itxiak aukeran

Herria utzi eta lagun berriak egiteko aukera paregabea izaten dute neska-mutikoek udaleku itxietan ere. Eta Malerrekan, Bertizaranan eta Baztanen hori eskaintzen da. Nafarroako Udal Euskara Zerbitzuen ekimenez, udaleku itxiak antolatzen dira eta Malerrekako eta Baztango Euskara Zerbitzuek horrekin bat egin dute. Hala, Doneztebe, Ituren, NARBATE, Sunbilla, Donamaria eta Oieregiko 18 haur apuntatu dira udaleku hauetan aurten, eta Baztango 12, 10 elizondar eta 2 lekaroztar. Lehen Hezkuntzako 1.-3. mailakoek Pasai Donibane-  
neko Piraten Udalekuetan parte hartuko dute. Uz-  
tailaren 2tik abuztuaren 7ra astebeteko egonaldiak egiten dituzte Malerreka edota Bertizarana-  
ko 7 haurrek eta Baztango 9k. LHko 4. eta 5. mailakoek, berriz, Larraulgo Xamariko Udalekuan igaroko dute uztailaren 2tik 26ra-  
ko aste bat. Malerreka edota Bertizaranako 2k eta Baztango 3k eman dute izena. Eta LHko 6. mailako eta DBHko lehenengo ziklo-  
koei Zugarramurdiko Udaleku Sorgindua egokitu zaie. Astebete egonaldia egiteko Malerreka edota Bertizaranako 9 haur apuntatu dira. Gastuen erdia gurasoek ordainduko dute, eta gainerakoa Mankomunitateek. Dena den, normalean, urte bukaeran Nafarroako Gobernu-  
ko Gazteri Sailetik dirulaguntza jasotzen dute, eta azken erdia Gobernuak eta Mankomunitateak ordaintzen dute.



**Nire txanda**  
Koro IRAZOKI

## Pilotari, Pitolari eta bertze...

**B**estetan gaude: nonahi **Bestazaleak** eta **Bertsozaleak** daude. **Pilotariak** ere, eta haien artean **Petolariren** bat (beharbada **Pitolari**ren bat ere?). Meza Nagusi zaleak **Mezalariak** ditugu, erlijioaren **Mezulariak** (**Musulariak** ere?). **Artzainak** eta **Hertzainak** non aritzen diren badakigu. Badakigu ere non aritzen diren **Mugalariak**, baina non aritzen dire **Monjalariak**?

Ez da gauza bera **Pentsularia** eta **Pentsalaria/Arrantzalea** eta **Ardozalea/ Zurgina** eta **Sorgina/ Kurrinka** egitea eta **Korrika** abiatzea/ **Kutxa** bat erostea eta **Kotxe** bat erostea. Berdintsu izan daiteke: **Salda** eta **Saltsa**; **Gudari** bat **Gidari** izan daiteke. **Pipalari** bat **PPlari** bat ere izan daiteke. Baina ez dira izen berak **Ainara/Naiara**, **Jone/June**, **Intza/Onintza**, **Ekaitz/Arkaitz/Zuhaitz**, **Maialen/Maitane**, **Iker/Xiker**, **Matixa/Katixa**... Eta orain **Ahoa** etsi eta **Ohera** noa. Aio.

### Ezpala

Aitor AROTZENA

## Vuvuzelak isildu direnean...

**F**utbolaren aitzakian dena maindire hori-gorriaz estaltzea gorrotu dut; atezain eta kazetari baten arteko maitasun telebisatuak izan duen oihartzunak nire *kasilletatik* ateratzen nau; Munduko Kopa irabazi zuten «heroi» desfileak, diskurtsoak... eta hauen arrimora hurbiltzen diren erregin-politikariak (kirola eta politika ez direla nahastu behar diotenak) nazkagarri zaizkit.

## Nabarmentzekoak



**Donato LARRETxea**  
Aizkolaria txupinazoa

Joan den urtean botatzekoa zuen Berako besten txupinazoa, baina aitagarreba hil zen bezperan. Aurten, berriz ere Herriko Etxearen gonbitea jaso du lehen suziria pizteko.



**Xabi SEIN**  
Igantziko kirolaria

Sanferminetan jokatu-tako Nafarroako herri kirol txapelketetatik hainbat txapel etorri diren eskualdera. Xabi Sein lasto altxatzen garaile atera zen eta bigarren ingude altxatzen.



**Miguel INDURAIN**  
Hitzordua Beran

Txirridulazaleek urteroko hitzordua izanen dute igande honetan Beran, La Miguel Indurain proban. Txirridulari handia ere, iaz bezala, bertan izaten saiatuko da.

### Atzera begira → 1992.07.30 / TTIPI-TTAPA 91. zbk



### Bestaz besta dabilzan Marokkoko saltzaileak ezagutz

Uda honetan ere edozein herrietako bestetan ikusiko ditugu: Paisa, Joxemari, Iñaki... hainbat izenekin bataiatu ditugu, baina funtsean, bizimodu hobe baten bila Marokkotik gurera etorritako migrariak dira. Horietako bat, Hamid, elkarrizketatu zuen duela 18 urte TTIPI-TTAPAK. «Etxekoetatik urrun, paperak lortzeko mila zailtasunekin eta gainera, Joxemari merke ta onaren kontura, hameka bazilada aguantatu beharra izaten dugu. Gogorra da gero!», aipatu zigun. Hemengo bertze edozein bezala tratatua izatea nahi zuen, baina Euskal Herrian arazorik ez zuela onartu zuen: «Euskaldunak normalki barnerakoi xamarrek bazarete ere, konfidantza irabazitakoan, ongi onartzen gaituzue gehienetan».



**Argitaratzailea** Ttipi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Anduetzeta, 12 • 31760 ETXALAR

Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • [info@ttipi.net](mailto:info@ttipi.net)

**Zuzendaria** Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Publizitatea** Usoa Vicente, Kulturkari SLU **Berriemaileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Sainzar, Kontxi Klaber, Ainhoa, Arantxa eta Maider Ansa, Asier Imaz, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Aitzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Jaione Otxandorena, Xan Harriague, Markel Lizasoain, Eneko Mitxeo, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Iñaki Tellebea...

**Fundazioaren Presidentea** Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

**Lege Gordailua** NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

**Erakunde laguntzaileak** Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerreko Zerbitzu Mankomunitatea

### 2010eko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria	.....37€	Europa	.....55€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka	.....31€
Ipar Euskal Herria	.....55€	Amerika eta Australia	.....123€	Leitza	.....15€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



Euskarabideak diruz lagundutako aldizkaria



## Kolaborazioak

### Paul olagarroa eta lagunak

Joseba URKIOLA (Leitza)

**E**kainaren 1an hasi eta uztailaren 11 arteko egunak oparoak izan dira futbolzalearentzat. 32 herrialdeetako ordezkariak Afrikan lehen aldiz ospatu den MundukoTxapelketan hartu dute parte. Helburua, 18 kilateko urrez mozorrotutako Munduko Kopa preziatua zeruratzea.

Baina futbolzalea ez denak ere, gertutik jarraitu ditu lehiaren nondik-norakoak. Uda haserako eguzki izpiez gaindi, asko gorrituta geratu dira. Batzuentzat *after-sun*-a nahikoa izan da. Beste batzuek, berriz, erredurek eragindako burukomina kentzeko, dermatoloarengana joan behar izan dute. Erabat

triste, futbolak kirolaz gaindi zer nolako garrantzia daukan jabetuta. Nork esan behar zuen Paul izeneko olagarro batek, munduko egunkaritarako orriak bere hartuko zituenik. Ekonomia arazoak, eguneroko buruhauste mingarriak, gizarte kezka, poltsikoak eragindako ezinak, Alemaniako molusko honek arazo guztiak estali ditu. Edozein iragartzaileraren teoriak erabat antzu utzi ditu. Berak esandakoa fede iturri bihurtu da. Agnostizismoa azken aldian indarra hartzen ari zela irakurria nuen, jendea fede gabe ari zela geratzen eta bere buruarengan bakarria sinizten zuela. Baina Paul-ekin erreportajeak erabat galdu du zentzua.

Ene ustez Olagarroak Kantauri itsaso inguruko gastronomia oparoaren altxor garrantzitsu ziren. Baina ez da hala, ezta gutxiagorik ere. Aldaketa aroa etorri Galizia ingurura ere. Apur bat pentsatzen jarrita, ez da harriztekoa. Galiziako gaitak vuvuzelek ordezkatu dituzte, Ribeiroa eta Albariñoa munduko ezein txokotan aurki daitezken burbuilaz jantzitako Koka-Kolek eta Cristina Pato eta Carlos Nuñez gaita-jotzaille ezagunen ordezkariak Shakira eta David Bisbal dira. Ahan-tzi gabe *A Rianxeira* abesti ezagunaren ordeztu; *Waka-waka* dela lau haizeetara abesten den ereserkia.

Uztailaren 12an egunkariak hartu eta bazirudien, eguneroko arazoak inprentan geratu zirela. Iluntasun guztiak argituak zeudela. Betiereko zoriona eskura zeukala gizarteak. Gol batek hainbesterako indarra ote daukan galde egin nion neure buruari. Hurrengo egune-tan etorri zitzaidan erantzuna. Uztailaren 13an, 14an, 15ean eta jarraikoetan. Paul ahazturan geratu zen, vuvuzelak erabat isildu ziren, Koka-Kolari gasa joan zitzaion eta Waka-wakarekin denak aspertu ziren. Munduko Kopa zeruratutako ustezko heroiak luxuzko oporretan zeuden, baina eguneroko arazoak ez zuten alde egin. Krisia, buruhausteak, poltsiko minak ogi iturri bihurtu ziren berriz. Paulen tentakuluak ez ziren hain eraginkorrak izan. Azken batean futbola ongi pasatzeko eta aisirako lagun bilaka daiteke baina ez eguneroko arazoak konpondu eta bizia moldatzeko.

«Futbola ongi pasatzeko eta aisirako lagun bilaka daiteke baina ez eguneroko arazoak konpondu eta bizia moldatzeko»

### Nafarroan errausketa planta

Patxi URISARRI eta Xabier ZABALO  
Bortziriak eta Mendialdea Mankomunitateak

**B**eharbada ez da garairik onena gaiaz solas- teko, Nafarroan Sanferminekin dena geldit- zen baita, baina errealitateara bueltatu be- har da. Eta errealitateak dio Nafarroako Gobernu- ak hasierako onespina eman diola 2010-2017ko Nafarroako Hondakinen Kudeaketa Plan Integra- lari (PGRIN). Beraz, epeak ireki dira eta Gobernu- ak definitutako ildoan zaborren errausketak, bar- ka, zaborren balorizazio energetikoak paper gar- rantzitsua izanen du etorkizunean Nafarroako hon- dakinen kudeaketan. PGRIN onartu baino lehen, «hiritarren parte-hartze» prozesua zabalik izan zen, batez ere hondakinekin zerikusia zuten agenteen solasaldi eta jardunaldi- en bitartez. Jardunaldi horietaz, denaz edo ka- sik denaz solastu zen, eta hondakinen balora- zio energetikoaren alde- ko giroa sortzera bide- ratuak zeudela ikusi zen. Orain, dokumentua ma- hai gainean dagoenean, mugitzea dagokigu. Na- farroako Gobernuak Ingurumen Departamentuak eman dio hasierako onespina, eta ez Hondakinen Partzuergoak. Hori garbi gelditu zen Partzuergoa- ren azken bileran eta beraz, pekatuaz libre dago Partzuergoa. Baina hau erranda, Nafarroako Hon- dakinen Partzuergoak ere PGRINaz duen jarrera azaldu beharko du. Gai izanen ote gara erantzun bateratua kontsentsuatzeko? Duela egun batzuk Partzuergoak konpostajearen aldeko apustua egi- ten zuela irakurri nuen eta egia da, lehenbiziko kan- painak egiten ari garelako. Biometanizazioarekin ari gara eta Partzuergoan dauden bi mankomuni- tatek teknika hauek erabiltzen dituzte hiri-honda- kinak birbalorizatzeko. Baina, nahikoa al da? Orain mugitu behar dugu, batez ere errausketa planta bat ondoan nahi ez badugu. Proiektu honek izan dezakeen erantzun sozialaz gain, jendartearen in- plikazioa behar duen alternatiba bat jarri nahi ge- nuke mahai gainean. Atez ateko bilketaz ari gara. Atez ateko bilketak gaur egungo sistemarekin bai- no hagitzez gehiago birziklatzen dela erakusten du. Sistema batetik bertara pasatzeak bertigoa eragiten ahal digu, baina Nafarroan erraustegirik nahi ez badugu, hartu beharreko bidea izanen da. Gainera, atez ateko bilketarekin lortzen den kon- posta hagitzez kalitate hobegakoa da, ez-onar- te guttiago duelako. Ez da utopia, Gipuzkoan ezartzen ari da eta garatuago dago Katalunian, Ita- lian... Jendarteak kontzientzia hartzen badu egin daiteke eta etorkizuneko belaunaldiak eskertuko digute.

«Atez ateko bilketa ez da utopia. Gipuzkoan ezartzen ari da eta garatuago dago Katalunian eta Italian»

## Irakurleak mintzo

Lesakako  
alkateak  
errandakoa  
gezurtatuzDeñe ABUIN  
Lesakako Onin Udal Taldea

Berriz ere, Onin behartuta dago Lesakako alkateak errandakoa gezurtatzera. Oposizioak haren taldearen kudeaketari buruz planteamendu desberdin edo kritikaren bat egiten duen bakoitzean, gezur eta difamazioen bidez egiten digu eraso; hala, gu isilarazten saiatzen da eta, jakina, herritarrak nahasarazten.

Bada, ez gara kikilduko eta, berak errandakolari erantzunez, honako hau adierazi behar dugu:

1- Ezin dugu talde-lana bete gabe utzi, ez baitago horrelakorik. Informazio-batzordeetan, behin eta berriz azpimarratzen duzun bezala, ez da akordioarik hartzen, baizik eta zuei interesatzen zaizuenari buruz informatzen duzue.

2- Argitu beharra dago zuen ideia izan zela Sanferminetan bikotekideak gonbidatzea, aitzineko legealdian. Aspaldidanik Lesakako bestetako menuan jaten zen otarraina kentzea, berriz, gure ideia izan zen, 2008an eta gobernu-taldean ginela (baina alkatetza ez zen gurea). Bazkariei dago kienez, ezpatadantzari ematen zaien bazkaria neska dantzariak ere gonbidatzeko ekimena ere gurea izan zen, egun horretan dantzatzen baitute eta ez baitziren bazkari horretara joaten.

3- Alkateordea izateagatik jasotzen nuen dirusariari dagokionez, ez dut deus gordetzeko. 2008an, alkateordea izateagatik, 9.000 euro kobratu nituen, eta ez 12.000 euro; 700 euro inguruko 14 ordainketa ziren, Herriko Etxean erabateko arduraldia izateagatik. Zenbait herritarrek ikusi eta bizi izan dute hori. Udalaren ekonomia-egoera ikusita, 2009an, neronek eskatu nuen kontu-sail hori kentzeko, hau da, nire lanpostua-



**Bota bertsoa**  
Ander Fuentes «Itturri» (Zubieta) • Doinua: Albizturtikan Bidaniraino

## Saharako umeak gurean

Fatu izena hamabi urte jaiotzez naiz sahararra gure etxean oasi gutxi eta soberan legarra Sahara zaharrak beti izan du bizimodutzat liskarra arnas hartzeko tarteka dugu kanpora joan beharra etxetik irten ta begietan nahiz eta dudan negarra atta ta amak bidali naute ezin du izan hain txarra.

Aurtengo uda pasatuko dut Euskal Herri urrunean herrixka ttiki politt bateko etxe haundi txukunean ostatu hartuz famili baten eskuzabaltasunean deus ez zait falta baina aitortu behar dut nere xumean Saharar haurrak pozik biziko gera askatasunean Euskal Herrira joan beharrik ez daukagun egunean.

ren ordez kobratzen nuen guzia. Telefonoa erabiltzeagatik gastatzen nuenari dagokionez, nik, bertzeek bezala, faktura pasatzen nuen hazienda-batzordeak onar zezan, eta Mitxelena jaunak ez zuen behin ere deus erran. Zergatik ateratzen du orain gai hori? Dei guziak zehaztuta daude. Ez litzateke gaizki egonen gastuen balantze zehatza egitea eta alderaketa

egitea. Bide batez, ez al genuen eskatu aitzineko osoko bilkuran auiditoria bat egiteko?

4- Nabarmentzeko nahiari dagokionez, horrela deitzen badiozu Onin taldeko bozemaila izateari, erran behar dizut parez pare izanen nauzula legealdia akabatu arte. Ez nauzu ikararazten, ez ni, ez nire taldea, 7 urte egon baikara zurekin Herriko Etxean, eta badakigu

zure kudeaketari egindako kritikek eraso pertsonalak eta mehatxak ekartzen dituztela. Azkena oraindik ebatzi gabe dago epaitegian, eta bide horretara joko dugu egoki iruditzen zaigun guzietan.

Eta hori guzia sortu da bestetako bazkaria ez egiteko eskatzeagatik. On egin diezazula, Juan Fermin.

Den-dena eskura eduki nahi baduzu, TELEFONO GIDA honetan aurkituko dituzu inguruotako telefono guziak: ofizialeak, komertzioak, lantegi eta zerbitzuak, partikularren telefonoak... Denak, informazio osoa eta goitik behera gaurkotua, erabiltzeko eta gauzak bilatzeko errexago antolatua.

**Laiister**  
ttipi-ttapa aldizkariarekin  
batera TELEFONO GIDA 2010



**IRAKURLEAK MINTZO** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta: [info@ttipi.net](mailto:info@ttipi.net)  
Posta: **Anduetzeta, 12 31760 ETXALAR**  
Tel.: **948 63 54 58** Faxa: **948 63 54 57**



**Prentsatik bildutakoak**



«Betidanik gustatu izan ziat interpreta- zioa, baina 16 urtere- kin lanean hasi nin- tzen, eta egia esate- ko, betirako izanen zela pentsatu nuen. Baina orain dela urte bat eta erdi Interneten sartu eta nire bitzta inoiz ez bezala imajinatu nuen. Madrilen figura- zioan aritzeko deialdi bat aurkitu nuen eta aurkeztu egin nin- tzen».

**Xabier PERURENA**  
Leitzako aktorea  
D. NAVARRA, 2010.07.05

«Berriz nirekin oroitu direla ikusteak poztu egin nau. Zinegotzi guztiak ados zeudela aipatu zidan alkateak, eta ni, kontent, noski (...) Orain txupinazora jende gehiago joaten da eta asteburuan ere bisitari gehiago izaten da, baina egia erran, bestak ez dira aunitzik aldatu. Lan egitea to- katzen zaigu, baina tarte libreak izaten ere saiatzen gara.

**Ramon ETXENIKE**  
Lesakako Sanferminetako txupinazoa bota zuena  
D. NOTICIAS, 2010.07.07

**11 galdera labur**

**Nola deskribatuko zenuke zure burua?**

Alaia, bestazalea, irekia eta sal- tsera.

**Nolako izaten da zure egun nor- mal bat?**

Saioa Pentsuetan egiten dut lan, ilunabarretan frantseseko klasee- tara joaten naiz, ahal badut ibiltze- ra ateratzen naiz zakurrarekin eta afal ondotik telebista pixka bat iku- si edo Interneten ibili.

**Eta zein izaten da larunbateko pla- na?**

Lagunekin gelditu pote bat har- tzeiko edo afaltzeiko eta batez ere besta egin.

**Besta egiteko gustuko to- ki bat?**

Goizueta.

**Hemendik kanpo bisitatu duzun tokirik politenazein da?**

Florentzia.

**Zein toki bisitatuko zenuke gustura?**

Hainbertze dau- de! Australia, Tai- landia, Ar- gentina...

**Familian aizko- rarako dagoen afizioa ikusita, ez al zara inoiz ani-**

**matu?**

Momentuz ez, baina nork daki! **Sabeldantzan ere ederki molda- tzen omen zara...**

Ahal duguna egiten dugu. Artikan egindako erakustaldian arrunt gus- tura egon ginen. Heldu den urtean gehiago eta hobeki!

**Herriko bestetan animatuko al za- ra sabeldantza egitera?**

Taldekieak animatuko balira bai!

**Zein da Beintza-La- baiengo bestetatik gehien gustatzen zaizuna?**

Herri bazkaria eta egun horre- tako giroa.

**Zein da Beintza eta Labaienen artean nabar- menduko ze- nukeen aldea?**

Ni Beintzakoa naiz eta La- baiengoa naizela erraten dut, az- ken fine- an biek bat di- ra.



**Amaia MINDEGIA → Beintza-Labaiengo gaztea**



**XORROXIN IRRATIA**

uztailaren 24ean  
**ELIZONDON**

**BEHIKAKA.COM**  
(2)

**ZOZKETA MUNDIALA !!**

## GIZARTEA

ESKUALDEA → BAZTAN, BORTZIRIAK, MALERREKA ETA LEITZAN

# Irailaren 9ra arte, gure artean egonen dira Saharako 17 neska-mutiko

Uztailaren 9az geroztik, eskualdeko etxeetan daude

**TTIPI-TTAPA**

Inoiz baino gaztetxo gehiago etorri dira aurtur Saharatik gure artetera: 17 guztira. Saharaztan Baztan Bidasoako Saharar Herriaren Aldeko Elkartasun Taldearen eta Leitzako Saharar Herriarekin Elkartasun Taldeen eskutik, uztailaren 9an etorri ziren: 4 Malerreka, 2

Bortzirietara, 9 Baztanera eta 2 Leitzara.

Urtero bezala, basamortuko bero itogarrietako hilabeteak kanpoan igarotzeaz gain, osasun arloko zaintza eskainiko zaie haur hauei. Bi hilabete ematen dituzte gure artean, irailaren 9a arte.

**ZUZENKETA**

Aitzineko alean, Sahararik uda pasatzera etorri diren haurren berri eman genuenean, Leitzara Gizarte Zerbitzuen laguntzarekin etortzen direla aipatu zen. Baina



ARGAZKIA: SAHARAZTAN

Saharako haurrak, harrera familiekin Bertizen.

informazioa ez da zuzena. Azken hamar urte-

tan lanean ari den Leitzako Saharar Herri-

kin Elkartasun Taldetik bideratzen baita guztia.

# Lasao

• egurrezko altzaria

Lasao Ind. - 20730 AZPEITIA • T. 943 15 11 82 • F. 943 15 10 98  
informacion@lasao.com • www.lasao.com

Altzari bereziak, fabrikatik zuzenean, bitartekorik gabe



*"Nafarroan estimatzen den altzaria"*



**BERA, LEITZA,  
SUNBILLA eta BEINTZA-LABAIEN**

**MARMOLES**  
marmolesalkaiaga@telefonica.net  
**ALKAIAGA, S.L.**

Gisa guzietako lanak marmol eta granitoan

**ONGI PASA BESTAK!**

Alkaiaga Ind. Ziobi, 11 (sarrera Beratik) • LESAKA  
Tel.: 948 631 215 Faxa: 948 631 063  
Mug.: 609 207 731



Ziobi, 9  
Alkaiaga Ind.  
31789 Bera

**Iñaki Errandonea**  
Tel.: 948 630 982  
Fax: 948 631 142

Ongi pasa  
herriko bestak!!!

**ALTZUGUREN**  
BENTA

JANARIDENDA / OROIGARRIAK

**GORA SAN ESTEBANAK!**

948 630 734 • IBARDIN • BERA



Pintura plastikoa eta esmaiteak  
Ebeiko tresnak • Jostailuak  
Opanak • Garbitasunezkoak  
Eskolako materiala • Jantziak  
Femelena • Bolleria  
Izozkiak • Goxokiak



Kanttonberri, 5 • 31780 BERA • Tel. 948 625 285

benta berri



OSTATUA  
JATETXEA  
JANARIDENDA

ONGI PASA BESTAK!

Ibardin  
948 630 708  
BERA



ONGI  
PASA  
BESTAK!

**IZARRA  
BENTA**

Ibardingo gaina  
Tel.: 948 631 319

BERA

**TAILERRAK**  
**ALMANDOZ**

**ONGI PASA BESTAK**

- Mekanika
- Karrozeria
- Ibilgailuak
- Elektrizitatea
- Kamioiak
- Furgoneta - 4x4

Faxa: 948 625 171 • Mug.: 679 892 032  
Banarta, 18 • Alkaiaga Ind. • LESAKA

**L**  
Semper  
autoeskola

GIDA BAIMENA  
EUSKARAZ

KURTSO  
INTENSIBOAK

ESKANTZA  
BEREZIAK

Besta on batzuk pasa itzazuel!

Tel/Fax 948 630 298 - BERA

**Elizalde Benta**

*Besta on  
batzuk pasa*

Ibardingo gaina • 948 631 024 • BERA

**VENTA GORRA**

Besta zoriontsuak igarol

Ibardingo gaina | BERA  
Tel.: 0034 948 630 759  
Fax.: 0034 948 631 231



OSTATUA  
JATETXEA  
Menua | Karta  
KAPETERIA  
OROIGARRIAK  
AUTOZERBITZUA



# BERA uztailaren 25etik abuztuaren 7ra

Ane BERGARA | Espanyol taldeko futbolari beratarra

**“Bartzelonan gustura nago, baina 7 urte daramatzat etxetik kanpo eta bueltatzea gustatuko litzaidake”**

Bartzelonako Espanyol futbol taldean bosgarren denboraldia bete du **Ane Bergara** beratarrak. “Hagitz gustura nago, urte zailak egon dira baina azken denboraldiarekin hagitz konten nago. Aspaldian ez dut selekzioaren deialdirik jaso, baina taldearekin lan ona egiten segitzen badut deialdia jasotzeko aukera gehiago izango ditut” dio Anek. Izan ere, aurtien hagitz denboraldi ona osatu du taldeak. Liga ez zuen eskuratzetik, finalean Rayoren kontra galduta. “Aurtien ligaren formatua ezberdina izan da. Denboraldi osoan lehen postuan egon da taldea baina azkenean txapeliduna joan-etorriko eliminatoria batean erabakitzen zen lehen bisailkatuen artean. Liga bukatzeko 4 partidu falta zirenean finalerako txartela lortu genuen eta bi partida gelditzen zirenean Rayo Vallecanok eskuratu zuen txartela. Lehen postuan gelditu ginenez lehen partidua madriden jokatu genuen (1-0 galdu genuen) eta itzuleko partidua gure etxean izan zen (1-1). Irabazteko aukerak izan genituen baino Rayo talde indartsua da eta beraien etxera joan zen txapelketa eta hurrengo urtean Txapelidunen Liga jokatzeko aukera” adierazi digu Berakoak.

Baina Erreginaren Kopa eskuratu zuen, Vallecasko taldeari errebantxa hartuz: “Liga galdu eta hurrengo astean kopa hasten zen —dio



Ane Bergara, Erreginaren Kopa irabazi zutenean

**KARLOS ALZUGARAY**  
OSTEOPATIA  
FISIOTERAPEUTA

Itzea, 20 behea  
31780 BERA  
T. 948 630 187  
M.607 853 205

ongi pasa bestak!

karlosalzugaray@telefonica.net

ONGI PASA BESTAK!

**D**

««««H I R U K I D E»»»»

Eguzki panelak ▶▶ **Iturgintza**  
Industria mantenimendua ◀  
Aire egokitua ◀

T. 948 625 395 • F. 948 625 392  
Alkaiaga ind. • Alasta, 4-6 Behea • 31770 LESAKA

**ANTZUZELAI**

Antzinaideak, angeluak, orma antzinakoak, leihoak, ateak, arkuak, pilareak, teiloiak, etaizak, makturak, zokaloak, hilariak, marrazkiak

ongi pasa bestak!

Tel. 948 631 317 • Faxa. 948 631 587  
Irungo enp. BERA  
www.antzuzelai.com • info@antzuzelai.com



**BERAKOUDALA**  
AYUNTAMIENTO DE BERA

Berako udalak  
besta zoriontsuak  
opa dizkizue

**GORA BERAKO BESTAKI!**

**TXALUPA, S.I.**  
AHRADEGIA



Arrain eta  
marisko freskoak  
aste osoan  
Enkarguak  
hartzera dirugu

ongi-pasa bestaki

Kaustelberreri, 3 - Bera. Tel.: 948 631 512 • 948 631 575 BERA

Jorge Sopena Colombero  
**ODONTOLOGO**  
Colegiado 223

Itzela, 1-1\*  
31780 BERA (Nafarroa)  
Tel.: 948 631 00 47

**sarobe**  
guztegia okidologia



7. de etzegara 25 baje  
31780 Bera (Navarra) 948 631 08 09  
www.sarobe.net



**ONGI PASA BESTAKI**

**ZELA  
KIROLAK**

948 630 598  
Altzate, 6 • BERA



Bertako  
produktuak

www.erotazarharategia.com


Etzegara, 3 • BERA • T. 948 630 068 • F. 948 631 057  
e-posta: erotazar@telefonica.net

**zalain**  
JATETXEA RESTAURANTE



Zalain Auzoa z/g 31780 Bera - Nafarroa  
T. 948 631 106 • www.zalain.com

reformas  
**LASTER**  
barrikuntzak



Etzegara, 14  
31780 Bera - Nafarroa  
T. 948 625 397  
F. 957 717 563  
eduprojet@gmail.com  
ongi-pasa bestaki!

**Kotoi**

Kortinak  
Esternak  
Etzerako  
ehungintza  
osagarriak



Rifarrao karrika 14 - 31780 Bera T.F. 948 631 660

**Haritza  
belardenda**

MASAJISTA  
MEDIKU NATURISTA  
KONTSULTA

Legia, 1 behea  
31780 BERA  
Tel.: 948 631 06 52



Hotz komertziala  
eta industrialia

ongi-pasa bestaki!

**INDARRI**

AIRE GIROTUA

Tel.: 948 630 888  
Mug.: 639 103 305 BERA

**UDAKO ETXEA**  
Benta - Ostalua - Jatetxea



Lorun - BERA  
Tel.: 948 63 11 15  
Tel.: 00 34 948 63 11 15 (parroldetik)

ongi-pasa bestaki!



**SORKUNDE BENTA**

ongi-pasa herriko bestaki!

© 948 630724 • Ibardin • BERA

**ALAI**

Gora San Esteban!

Importazioko  
bahiak, gaztuo,  
gezetuo  
eta kongelatuak

**udana**  
salazones



Aikaiaga Ind. • Lesaka  
Tel.: 948 631 538 • Fax: 948 631 550

Legia, 21  
BERA

**Txepetxa**

**Albaitaritza Klinika**

Txertoak • Analisiak • Kirurgia  
Pentsuak eta osagarriak  
Zakurrendako ilepaindegia

Ordutegia:  
11:00 - 13:00 / 17:00 - 20:00  
Larunbaletan:  
09:30 - 13:00

Tfnoa:  
948 631 362 • 669 877 943

harategia **Esarte**

ELIZONDO 948 660 120





beratarrak— eta Zaragozari irabazi behar genion Basauriko “Final four”-era iritsi nahi bagenuen. Joaneko (4-2) eta itzulerako (3-1) partidua irabazi genituen. Final erdietan Barcelonaren aurka garaipen (1-0) gogorra lortu genuen. Finalean Ligan bezala Rayoren aurka jokatu behar genuen eta bertan bai garaipena lortu ahal izan genuen, 3-1eko emaitzarekin. Nik sartu nuen markagailua irekitzen zuen gola baina talde guztiak lan hagitz ongi egin zuen”. Taldearentzat ez ezik, bereztat ere denboraldi bikaina izan da, nahiz eta lesioen bat ere izan duen tartean. “Pertsonalki denboraldi ona izan da. Denboraldia maila onean hasi nuen baina Abendu aldera, entrenamendu batean belaunean min egin nuen eta 2 hilabete inguru egon nintzen jokatu ezinik. Rekuperatu nintzenean, maila fisikoa recuperatzea kosta zitzaidan baina hagitz ongi bukatu dut denboraldia, hasierako mailan” aipatu digu **Ane Bergarak**. Denboraldi honetako balantzea egin ondotik, hurrengora begira dago Berako futbolaria, baina oraindik ez du argi zer egingen duen. “Egia erran ez dakit zer egingen duten hurrengo urtean. Aurreko uda mugitua izan zen ez nekielako zer egin eta Espanyol-en segitzea erabaki nuen. Oraingo egoera aurreko urtekoaren antzekoa da, ez dakit zer egingen dutan. Hemen Bartzelonan gustura nago baina 7 urte daramatzat etxetik kanpo eta etxe aldera bueltatzea gustatuko litzaidake baina ez dakit zer gertatuko den...” aipatu digu. Emakumeen futbolak zerikusit gutti dauka berriki Hego Afrikan ikusi dugun Munduko txapelketa dizdiratsuekin. Honetan, badirudi krisirik ez dagoela, baina emakumezkoenean, ezberdin dira gauzak: “Patrozinadoreak lortzeko krisia nabaritzen da. Espanyol-en zorte ona dugu, nesken taldeak laguntza aunitz jasotzen baitugu mutilen taldearen eskutik.”. Herriko San Esteban bestetan parte hartzeko ere ez du aukera handirik izaten, “ahal badut bertan egotea gustatzen zait baina normalean ezin dut. Aurrendenboraldia abuztu hasiera hasten dugu eta normalean ez naiz Beran egoten”. Bartzelona eta Bera, Bera eta Bartzelona... bietan gustura egoten da. Bartzelonara nere familia eta lagunak ekarriko nituen eta Bartzelonatik Bera hemengo lagunak eta hemengo klima eguzkitsua” erran digu.



**Artieda M.**  
LENTZERIA • MERTZERIA

ONGI PASA BESTAKI  
Kantorianeri 2 • BERA • 948 625 411

ostata • jaretzea  
**BETI-JAI**  
Egurren mesa

Besta on  
lortzeko pasoa!

Astakari Karrika, 1 • T 948 630 810 • BERA

**ARTIEDA ESTANKOA**  
Estanco Nº 3  
Cava de Puros

Pasa Urteko 1. Urte Eguna  
21701 Bera  
Tel. 948 631 827  
Fax. 948 631 804  
www.artieda.com

**Azalea** ongi pasa bestak  
lorezenda

Azalea, 26 • BERA  
Tel. 948 63 11 21

**Lirain**  
ongi pasa bestak!

Ileapaindegia 948 630 760  
Estetika 948 630 286

Iparalde, 1 • BERA

**LABEZAR**  
Eztegara, 18  
948 631 076 • BERA  
PASA ITZAZUE BESTA ON BATZUKI

# BENTA MIRENTXU



Janaridenda · Jatetxea · Bisuteria  
Oroigarriak · Arropa denda

Ibardingo gaina · tel. (0034) 948 630 717 · Bera (Nafarroa)

# BIOK LURRINDENDA

Arropa denda eta osagarriak



Ibardingo gaina · tel. (0034) 948 630 558 · Bera (Nafarroa)

BESTA ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU!





Josu IRATZOKI | Berako alkatea

## “Bertze arloetan bezala, %35 jautsi dugu besten aurrekontua, baina herritarren partehartze aldetik aberatsagoak dira”

Berako San Esteban besten aurrekontuak murrizketa handia izanen du aurten, “bertze hainbat arlotan egin behar izan dugun bezala, %35era jautsi behar izan dugu bestetara bideratutako diru-saila ere. Joan den urtean 75.000 euro inguruko aurrekontua izan genuen eta aurten 42.000 eurora jautsi da” jakinarazi digu **Josu Iratzoki** alkateak. “Ahal zen tokian murrizketa ttiki batzuk egin dira: migattuak egun baten kendu dira, musikariaren prezioak ere estutu ditugu, su-artifizialik ez da izanen aurten, gas-tu kozkorra zutelako, Herriko Etxeko bazkari ofiziala ere kendu da, pilota partidatan ere pixko bat jautsi da... Pilotari onak izanen dira aurten ere, baina joan den urtearekin konparatuta merkeago etorriko dira...”. Baina murrizketa horiek ez du eraginik izanen besta egun kopuruan. Alkateak aipatu digunez, “lehenbiziko bileretan lau eguneko bestak egiteko aukera aztertu genuen, astelehenetik ortzegunera, astebururik hartu gabe eta horrek jendea mugiarazi zuen, hurrengo bileran Herriko Etxeko pleno aretoa jendez gainezka zegoen, proposamen berriak izan ziren eta zenbait taldek eta elkartek bere gain hartu dituzte ekitaldi batzuk”. **Iratzokiren** ustez. “aurrekontuan galdu duguna herritarren partehartzean irabazi dugu, ostaturik, gazteek eta bertze taldeek diru guttirik egiten ahal diren gauzak proposatu dituzte, alde horretatik ongi etorri da. Erraten da dirua falta denean imaginazioa gehiago lantzen dela eta aurten beratarrek hori erakutsi dute”. Joan den urtean **Donato Larretxeak** bota behar zuen txupinazoa, baina aitagi-narriba bezperan hil zenez, **Rora Mary Errandoneak** izan zuen ardura hori. Alkateak aipatu digunez, joan den urtekoa berreskuratu eta Arantzan sortu arren aspaldian Beran bizi den aizkolari handiak piztuko du bestak abiaraziko dituen lehen suziria.

Azkenean, krisiak krisi, kasik hamar eguneko bestak plantatu dituzte Beran. Tartean, aldaketa batzuk ere badira egitarauan. Honela, ortzegunean Altzateko pilotalekuan egingen den Kantu Bazkariaren aitzakian, Euskal Besta eguna izanen da edo igandean, Larun Haizpe elkar-teak, Auzoa Extremek, bertso eskolak, musika eskolak edo Gazte Asanbladak, bertze taldeen artean, egun guziko egitaraua osatu dute.

Azken xehetasunak lotzen ari dira orain

Beran San Esteban bestak ahal bezain ongi atera daitezten. Joan den urtean bezala, abuztuaren 6an egiten den herri bazkarian lanean aritzeko laguntzailerak eskatu dituzte Kultur Batzordetik. Izen-ematea uztailearen 25a arte egiten ahal da, 948 631222 telefonora deituz, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara. Izen-abizena eta telefonoa jakinaraztea ezinbertzekoa da eta telefonoa ez badute hartzen, mezua erantzugailuan uzten ahal da. Kultur Batzordearen idatziak dioenez, “bestetan urtero egiten den Herri Bazkaria egin ahal izateko denon laguntza behar izaten da lan handia dagoelako... Aurten ere Herri Bazkaria nahi baduzu... Parte hartu!”.



Josu Iratzoki, Berako alkatea

DENDA  
GOYA

DENDA TTIKITU  
BEHAR DUGU  
**%50**  
DESKONTUAK

eta %2ko deskontua  
Club más por ti txartelarekin

GURE TXOLLOEN TXOKOA

Gaitzak · Bonak · Jauntziak  
 Kamisetak · Burdin tresneriak  
 Kubaskerak · Taamarrak  
 Alfonbrak · Blusak · Botak...

BETIKO PRODUKTUAK

Kortinen konfekzioa  
 Lanerako arropa · Toallak  
 Mairidireak · Mantak  
 Edredoiak · Nordikoak  
 Nordikoen fundak  
 Kapeluak · Euskal arropa  
 Lanparak · Menajea  
 Oparitzeko detaileak

Alzate, 5 - BERA  
T 948 630 083

KONPROMISORIK GABE  
**ZATOZ!**  
EZ ZARA DAMUTUKO

BERAN  
KAPRITXOZKO  
PISUAK

uztailean  
prezio  
berriak!!

AUKERA  
PAREGABEA!!!

ezagutu itzazu!  
**620 451 425**



**PIKABEA**  
harategia jasangarria

*ongi pasa bestak!*

Askain, 7 - BERA  
T. 948 631 284



**AROTEGI METALIKOA**

**KORTA ANATA**

Bidasoa kalea, 76 - 17. aldea  
Tel-Fasa: 948 631 651  
BERA

**ZENTRU LOGOPEDIKO-PEDAGOGIKOA**  
Nekane Ordoki Gonzalez

- ✦ Ahazkopen zailtasuna ("erre" gaitzi esana, "erre" a...)
- ✦ Gauzak kontatzeko zailtasuna
- ✦ Irakurketa arazoak
- ✦ Idazketa arazoak
- ✦ Toxeltasuna "Iartamudeo"
- ✦ Ahots arazoak
- ✦ Arnasketa arazoak

*Euskaraz/Enderez*

☎ 646 894 332  
BERA



**EZPELA**  
CALDERINAK  
ZUTSUKAK

BERA

678 350 412 (Eloiy)  
617 081 335 (Matias)



**MEKANIZATUAK**

**Ubelo**

Poligono Industrial Zubain, nº 8  
M. y fax. 948 63 11 67  
BERA (Nafarroa)



**Juan Ignacio Oiartzabal**  
arkitektoa

*ongi pasa bestak!*

Igor karrika, 18 • 31780 BERA • 948630304

**LABIAGA**  
eraikuntzak

IMANOL 608 117 634  
XATUR 608 117 635

*ongi pasa bestak!*

BERA

**EDARIAK**



**MANUEL TABERNA S.L.**

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)  
Tel. Fax: 948 63 10 27

**BERATARRA**  
ERAIKUNTZAK

Leitzako b. 66 - 8, blokea 2C  
DONEZTEBE

Jose Ignacio Maritorena Larralde  
670 489 337

**ONGI PASA BESTAK**




*ongi pasa bestak!*

**KIMAKETA BEREZIAK**



**Huzzia**  
Irezaintza

☎ 666 40 72 14 • 948 63 11 99  
Hegoalde 33, 2 ez • BERA

*ongi pasa bestak!*

948 631 218

Kanttonberri 1, BERA

**KATEA-BIKE**

BIZIKLETA SALMENTA  
ETA KONPONKETA





# BERA

## uztailaren 25etik abuztuaren 7ra

### uztailak 25 IGANDEA

**XIX. LA MIGUEL INDURAIN**  
**Nazioarteko Martxa Zikloturista**  
Antolatzailea: Club Ciclista Beratarra  
Argibide gehiago: [www.laindurain.com](http://www.laindurain.com)



besta zoriontsuak opa dizkizuegu



[bobostatua@euskalerrria.org](mailto:bobostatua@euskalerrria.org) - 948 630 052

### uztailak 26 ASTELEHENA

**20:00 Bidasoaldeko XIV. Nazioarteko Gazteen Folklore Jaialdia.** Lekua: Altzateko plaza (eguraldi txarra bada, Altzateko pilotalekuan). Parte-hartzaileak: **Ethnos** (Skopje; Mazedonia); **Timisul** (Timisoara, Errumania) eta **Eraiki Dantza Taldea** (Behobia; Irun). Argibide gehiago: [www.festivalfolklorebidaso.com](http://www.festivalfolklorebidaso.com). Antolatzailea: Eraiki Dantza Taldea. Laguntzailea: Berako Udala.



948 631 521  
material gutxiesten inbortzatuak, dogu  
"barraketa" 2 aparitateko artikuluak

### uztailak 30 ORTZIRALA

**19:00 Imanol Zubieta "Fash" Futbito Txapelketa.** 3. eta 4. postuak eta finaleko partidak. Toki Ona Kiroldegian. Gero afaria eta sari banaketa afarian bertan. Antolatzailea: Berako Gazteak. **20:30 III. Lorez apaindutako Leiho eta Balkoi lehiaketako sari banaketa.** Lekua: Herriko Etxeko plaza. Antolatzailea: Larun-Haizpe Berako merkataria, ostalari eta zerbitzu enpresen elkarteak. Laguntzaileak: Berako Udala eta Nafarroako Gobernua.



**HORTZ-Klinika**  
Iker Filtzatu Filtzatorre  
948 631 631

### uztailak 31 LARUNBATA

**16:30 Plater tiroa Foso modalitatean.** Parte-hartze librea. Antolatzailea: Berako Ehiza eta Arrantza Elkartea.



**ARIN**  
ASEGURUAK

**BERA**  
**DONEZTEBE**  
Ongi pasa bestak!

### abuztuak 1 IGANDEA

**19:00 Nafarroako "herriz herri" konbinada txapelketa** Altzateko plazan. Parte hartzaileak: Berako Herri Kirol Taldea, Berriozar, Ultzama eta Basaburua. Antolatzaileak: Nafarroako Herri Kirol Federazioa, Berako Udala eta Berako Herri Kirol Taldea.




Parrokia, 21 • DONEZTEBE  
T. 948 450 266 • F. 948 450 617

Eztegara, 26 • BERA  
T. 948 625 259 • F. 948 625 264

**José I. Gonzalez Enguita**  
pinturak

*barrukoak eta fatxadak*

tel. 666 235 466



**Iñaki TAXIA**  
**UGARTEMENDIA**

T. 948 630 606 - 659 498 995  
Alzate, 23 - 1. ezk - BERA



**Urdi Bera**

GORA SAN ESTEBAN! eta ongi pasa bestak!

Kivut bulegua 948 630 215



**BORTZIRI**  
**UNSION ANAIAK**  
Sukalderako altzariak

**ONGI PASA BESTAK!**  
Uztailaren 31n, larunbatarekin, egingen da Mendi Bizikleta Jautsiera, eta prestaketa lanetan burubelarri dihardu Biltoki elkarteak. Gainera, Euskadiko Openerako puntuagarria izanen da.

Ibilbidea urterokoa izanen da, Fraingo antenatik abiatu eta ur depositu zaharrean barna iturrian bukatuko da. Goizean entrenamenduak egiteko aukera izanen da ibilbidea eza-gutzeko, eta arratsaldean hasiko da proba. 15:00etan lehenbiziko txandakoak abiatuko dira, eta 17:00etan bigarrenakoak. Eta egunari akabera emateko,

berendu-afaria egingen da elkarteetan.

Lasterketan parte hartzeko 15 euro ordaindu behar dira eta proba egunean norbaitek lagundu nahi badu, Biltokiko zuzendaritza batzordeko bati erra-ten ahal dio.

Informazio gehiagorako: 680 141899.

Bertzalde, uztaillaren 31ko probaren ondotik, irailaren 5ean bertze BTT ibilaldi bat egingen da, hau ere Biltokik antolatuta.

### Igeriketa ikastaroa bukatzeaz

Hiru txandatan banatuta, herriko eta Arantzako 25 neska-mutiko dabilta igeriketa ikastaroetan. Baina hiru as-teren ondotik, ortziral hau izanen dute azke-neko eguna. Hortik aintzineria, ikasitakoa praktikan paratzeko aukera izanen dute.



ARGAZKIA: OIHANA TXOPERENAK UTZITAKOA

### Iaz ez, baina aurten bai

Joan den urtean ez bezala, erantzun ona izan dute udalekuek aurten. Jende eska-siagatik egin gabe gelditu ziren iaz udalekuak, baina aurten, uztaillaren 5az geroztik, egunero 13 neska-mutiko biltzen dira Oihana Txoperena herritarra eta Itsaso Etxabide lesakarra begirale dituztela.

### Frontenis txapelketa

Ekainaren 26an hasi zen Biltokik antolatutako Frontenis Txapelketa. Sei bikotek eman dute izena abuztuaren 7an jokatu da finala. Egun horretan afaria ere egingen da elkarteetan

### Maria lantzi trikitixa txapelketan irabazle

Baztan, Malerreka eta Bidasoako XIII. Trikitixa txapelketa jokatu zen uztaillaren 4an Lesakan, eta 12 urtetik beheitiko-en kategorian, Maria lantzi herritarra nagusitu zen, Olaia Otxoteko lesakarra lagun zuela.



UTZITAKO ARGAZKIA

### Denboraldi bikaina egin duten bi pilotari

Pilotan ongi aritzeak fruituak ematen ditu eta Enaitz Telletxeak eta Jokin Mitxeori horixe gertatu zaie. Pilotan bikote paregabea egiten dutela erakutsi dute berri ere, denboraldia hirugarren txapel batekin osatu baitute: Lizarrako Txapelketa irabazi zuten lehenbiziko, Barañaingoa etorri zen gero, eta azkena, uztaillaren 11n Añorgan lortutakoa izan da. Argazkia ordukoa da, eta Peñagarikano pilotariarekin ageri dira.

**XATURETXEA**  
JATETXEA  
T: 948 637 260 - LESAKA

**IRU BIDE**  
Estrategia - Akadua  
Biluz/734, 3<sup>o</sup> Lesaka  
Tel: 948 637 127

**ZOANSA**  
SEAT  
VW  
HYUNDAI  
AUDI  
MARKA GUZIEK KONPONKETA  
Banarta, 2 - Alkaiaga industrialdea  
LESAKA (samera Beratik)  
Tel: 948 625 555 - Faxa: 948 625 505

**LEGARRA**  
EGUNKARIAK  
ALDIZKARIAK  
LIBURUAK  
OPARIAK  
TABAKOA  
FOTOKOPIAK  
ENKUADERNAZIOAK  
PLASTIFIKAZIOAK  
FAX PUBLIKOA  
TESTU LIBURUAK ENKARGUZ  
Tfnoa/Faxa: 948 63 70 30 • Albistur, 9 • LESAKA

OSPAKIZUNAK → ABUZTUAREN 21EAN

## Errugabe, Bad Sound System, Vendetta eta Ze esatek! taldeak Arantza Rock-en

Arantza Rock-eko kamisetak eta metxeroak salgai daude

### Nerea ALTZURI

Beheko Pisuetako besten ondotik, herrikoak begi bistan ditugu. Amabirjin bezperan hasi eta asteartean akautuko dira, eta egun horietan zer izanen den hurrengo alean jasoko dugu. Halere, Gazte Asanbladak abuztuaren 13rako eta 21erako besta egunak antolatu ditu. Abuztuaren 13an, bestak girotzeko zer egin izanen da, oraindik egitaraua finkatzeko badago ere. Abuztuaren 21ean, larunbatarekin, berriz, Arantza Rock 2010 iraganen da.

Ilunabarrean, 19:00-etatik aitzinera, triki poteoa izanen da eta Arantzako batukada taldeak karriketan barna kalejira egingen du. Eta arratsuan, 23:00etan hasita, plazan, Errugabe (Doneztebe eta Amaiur-

ko taldea), Bad Sound System (Irun aldekoa), Iruñea aldekoa den Vendetta eta Ze esatek! gipuzkoar musika taldeek kontzertua eskainiko dute. Arratsaldetik aitzinera, pintxoak, bokatak, gazte tonbola, txozna eta abar ere izanen dira.

### METXEROAK ETA KAMISETAK

Aurtengo edizioako metxeroak salgai daude eta kamisetak bidean dituztela erran ditzaguzte Gazte Asanbladatik. Hamar bat lagun ari dira guztia josten, eta joan den urteko arrakasta ikusita, seguru

aurten ere ongi aterako dela.

### Dantzariak entsaioetan

Bestak aipatzen segituz, herriko dantzariak emanaldiak ere prestatzen ari dira. Larunbat arratsaldero dantzari tiki eta helduak entsaio-

ak egiteko elkartzen dira. Aurten ere, iaz bezala, helduen taldean herriko batzuk fandango eta arin-arina dantzatzera animatu dira.

Bertzalde, ohitura den bezala, Amabirjin Egunean herriko dantzak egingen dituzte dantzari gaztetxo nahiz helduen taldekoek.



ARGAZKIA: NEREA ALTZURI

### Udalekuak giro ederrean

Argazkian udalekuan parte hartzen ari diren haur gehienak ageri dira. Aitziber, Maier eta Olaiarekin hilabete osoan kanpoan zein barrenean hainbat jardura egiten ari dira. Orain arteko zenbait aipatu: eskulanak, herri kirolak, erre-

### Mikel Oteiza saritua

Berandu xamar bada ere, ez dugu aipatu gabe utziko Nafarroako ikastetxeetako euskarazko lehiaketako sari bat Arantzara etorri dela. Narratibaren arloan, Mikel Oteiza Almandozek bigarren saria eskuratu du.

### Barnetegiak Aterpen

Hasi da Barnetegiaren sasoa. Hala, Aterpen, bi hilabetez, hamabortzeroko AEKko barnetegiak egingen dira eta Euskal Herriko zein kanpoko jende andana hurbilduko da euskara maila hobetzeko asmoz.

**Alberto RETEGI**  
abokatuak  
abokatuak  
© 948 630 763 - Alzate, 17 - BERA

**FRANCOIS VERRON**  
**FRANCOIS VERRON**  
**FRANCOIS VERRON**  
**FRANCOIS VERRON**  
BILTEGIA 948 630 102 • FAUSTINO 647 810 152  
Bidasoa, 76 - atea 21-22 • 31780 BERA

**TNC PUERTAS NUEVA CASTILLA**  
**AGENTEA ANTON LEGORBURU GOÑI**  
Ate berriak kolektatu eta reparazio lanak  
Mugikorra: 670 497 485 • Tailerra eta faxa: 943 630 774

# SUNBILLA

ARTZAINAK → IRAILAREN 19AN

## Ameriketako artzainen bestarako txartelak igandetik aitzinera salgai

Abuztuaren 28ra arte erosten ahalko dira

### Jaione OTXANDORENA

Lesaka, Aldude, Elizondo, Auritz... Eta aurtien Sunbillan. Azken urteotan Ameriketako artzain ibilitako euskaldunen besta egiteko gure herria aukeratu dute aurtien. Irailaren 19an izanen da baina dagoeneko Udala eta Sunbildarrak Ameriketako Elkarte burubelarrari dabilta hori antolatzen.

### TXARTELAK EROSTOKO TOKIAK

Txartelak aitzinetik hartu beharko dira. Igande honetan, uztailak 25, paratuko dira salgai eta abuztuaren 28ra arte egonen da erosteko aukera.

Horretarako toki edo pertsona hauengana jo beharko da: Ordoki erretegia (Arizkun); Juan Bautista Oteiza (Arraioz); Felix Almiran-

## Hurrengo mozketan abuztuaren 5ean



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

Ehun bat lagunek parte hartu zuten uztailaren 3ko protestan.

Mobilizazioek aitzinera segitzen dute. N-121A errepidetik herrira sartzeko edo herritik errepide nagusira ateratzeko bidegurutzeari aterabide duina ematea eskatuz, bigarren errepide mozketan egin zen jontan den uztailaren 3an, eta hurrengo abuztuaren 5ean egingen dela iragarri dute. Nafarroako Gobernuak ez die herritarren eskakizunei

erantzun eta mobilizazioekin segituko dutela iragarri dute Herriko Etxetik. Irailaren 2an eta urriaren 7an ere egiteko asmoa badu. Abuztutik aitzinerako mozketak ordu erdikoak izanen dira, 11:30etik 12:00etara.

Uztailaren 3ko protestan, bertalde, alkateak eta zinegotziek ehun bat herritarren babesa izan zuten.

tarena (Orbaitzeta); Julio Jorajuria (Iruñea); Santiago Ugalde (Zubieta); Laura Iantzi (Bortziriak); eta Jesus M<sup>a</sup> Jorajuria (Sunbilla).

Irailaren 19rako antolatatu duten egitaraua

eguna hurbildu ahala emanen dugu.

**ABACDEL**  
Análisis clínicos  
ANÁLISIS CLÍNICO  
ANÁLISIS CLÍNICO  
ANÁLISIS CLÍNICO

- Hematología
- Odol biokimika
- Erreuma probak
- Diabetes
- GIB serologia
- Tiroide
- Hormona-probak
- Tumore markatzaileak
- Gernu-analisiak
- Elikagaien intolerantzia

Ramón González-Vallinas  
ANÁLISIS CLÍNICO ESPECIALISTA

Isteingorta, 1 - behea • 20008 DONOSTIA • T. 943 210 872  
abacdel@yahoo.es • www.abacdel.com

**F. LANCHAS**

Alubuladorea eta berrizatzaila  
Parket eta parket flotatzaila  
jartzea  
Mota guztietako zolak

Tel: 946 630 736 M: 607 406 781



UTZITAKO ARGAZKIA

### Bortz txapel aurtien

Bortz txapel eskuratuta denboraldi bikaina egin du Iker Espelosen pilotariak. Bortzak Enaitz Antso lagun duela irabazi ditu. Aurtien 40 partidatik gora jokatu eta hiru bertzerik ez dituzte galdu. Oso bikote ona osatzen dute, zerbait gisa atera dira bi urtez jarraian Nafarroako txapelkun. Aurtien zazpi txapelketetan parte hartu eta zazpitan finalera iritsi dira, eta horietatik sei irabazi dituzte: Belateko Txapelketa, Nafarroakoa, Ezkurra Memoria-la, Barañaingo Txapelketa eta Nafarroako Herriartekoa. Orain atseden ttiki bat hartu eta ea iraillean gogoz bueltatzen diren.

### PERTSONAIA

Unai BERTIZ

Nafarroako Txapelkun berriz ere

Ez da Nafarroako txapela eskuratzen duen lehenbiziko aldia, eta aurtien ere hala egin du. Iruñeko Sanferminetan Nafarroako Harri-Altzate Txapelketa jokatu zen, eta Unai Bertizek arazorik gabe irabazi zuen. 125 kiloko zilindroari 23 altzaldi eman zizkion, 112,5 kiloko kubikoari 14 eta 100 kiloko bolari 16. Guztira 6.050 kilo jaso zituen, bigarren sailkatu zenak baino 587,5 gehiago. Sa-soiko dago herriko gaztea eta segi dezala horretan.



IKASTAROAK → ABUZTUAN ETA IRAILEAN

## EGA ikastaroa antolatu du IKA euskaltegiak uda honetarako

Abuztuaren 9an hasi eta irailaren 3an akituko da

### TTIPI-TTAPA

Euskara maila hobetzeko bidean, urrats berri bat egin nahi duenak EGA ikastaroa egiteko aukera izanen du uda honetan. Doneztebeko IKA euskaltegiak antolatuta egingen da eta jakinarazi dutenez, ikastaroa abuztuaren 9tik irailaren 3ra izanen da. Interesatuak 948 451555ra dei dezakete.

### Merkatarien kanpaina berria

Udan ere, herrian eros-

ten dutenak saritzeko helburuarekin, bertze fideltasun kanpaina bat abiatu zuen joan den astean Doneztebarrak Merkatarien Elkarteak. Abuztuaren 21era bitarte, elkarteko kide diren komertzioetan txartel bat banatuko da, eta 12 denda desberdinetan egindako erosketen ziguilarekin bete behar da. Jasotzen diren txartel guztien artean, abuztuaren 21ean 200 euroko 10 bale zozketatuko ditu merkatarien elkarteak.

### Alfredo Telletxea Camille Extremen

Izabako Camille Extreme proba zerbaitegatik ezaguna bada, ho-



ARGAZKIA: NAFARROAKO GOBERNUA

### Eskualdeko herrietako hornikuntza elektrikoa hobetuko duen aspiestazioa inauguratu dute

Eskualdeko udalerrien hornikuntza elektrikoa hobetuko duen azpiegitura estazio berria inauguratu zuten hilabete hasieran Miguel Sanz Nafarroako Gobernuko presidentea eta Jabier Villalba Iberdrola Distribucion enpresako presidentea. Iragarri dutenez, azpiestazio honekin Doneztebe, Lesaka, Etxalar, Bera eta Baztanen, eta inguruko lekuetan, hobetu egingen da hornikuntza. 13,4 milioi euroko inbertsioa egin da eta Nafarroako Gobernuak 1,2 milioi euroko ekarpena egin du. Argazkian Gobernuko ordezkariekin batera, eskualdeko herrietako alkate eta zinegotziak ageri dira, tartean Miguel San Miguel Doneztebeko.

ri duen maila gogorragatik da. Ez guttiago eta ez gehiago, 31,4 kilometroko ibilbidea eta 3.900 metroko desnibela osatu behar izaten dute lasterkariak. Baina bada harat joatera ausartzen denik ere. Eta Alfredo Telletxea herri-tarra da horietako bat.

Laugarren edizioa joan den igandean, uztailak 18, egitekoa zen, eta hantxe parte hartzekoa zen Telletxea. 2006an ere parte hartu zuen lasterketa gogor honetan. Ekainaren 6an, bertalde, Baigorri jokatu zen Artzainen Lasterketan lan ederra egin zu-

en, bosgarren postua eskuratuz. Eta ekainaren 13ko Lakuntza-Aralar lasterketan 46. saikatu zen. Gibelera goz, maiatzean Zarautzen egin zen Pagoetako Mendi Lasterketan 15. gelditu zen eta apirilean, Lapurdiko Les Delices D'Ursuia proban seigarren.

Oraindik ez duzu probatu Elgorriagako Bainuetxeko ur gazietan flotatzea?  
**HAU DA ZURE AUKERA**

**IGERILEKU TERMALAN ERLAXAZIO ZIRKUITO A**  
**bakarrrik 10€ pertsonako**  
Igande arratsaldeetatik ostegun arratsaldeetara (bakarrrik arratsaldeetan)  
Eskaintzaren azken eguna: abuztuak 31

**IGERILEKU TERMALAN ERLAXAZIO ZIRKUITO B**  
**BAZKARIA EDO AFARIA ETA FRESKAGARRIA EDO KAINA**  
astelehenetik ostiralera, arratsaldeetan **26€ pertsonako**  
larunbat goiz eta arratsaldeetan eta igande goizetan **29€ pertsonako**  
Eskaintzaren azken eguna: abuztuak 31

**BALDINTZAK: ERRESERBA EGIN BEHAR DA**  
Ezin zaie bertze eskaintza edo promozioei gehitu

**ELGORRIAGA**  
BALNEARIO - BAINUETXEA  
Errotaldea z/g  
31744 Elgorriaga (Nafarroa)  
Tel. 948 45 60 45  
www.balnearioelgorriaga.com

## ITUREN

AZPIEGITURAK → OBRA BERRIAK

# Herriko Etxeko teilatua konpontzeko deialdian ez da proposamenik aurkeztu

Aurtizko frontoiaren teilatuko lanak Mindegia zurgindegiak egingen ditu

## Arkaitz MINDEGIA

Udaletxeko eta Aurtizko frontoiko teilatua konpontzeko deialdia egin zuen Udalak joan den hilabetean, eta epea akituta, proposamenik gabe gelditu da Herriko Etxekoa. Teila zaharrak kendu eta behar den tokietan berdindu, teila berriak arrastrelen paratu eta teilatuhodiak, zorrotanak eta lau sabailehio jarri nahi dira, baina lehendabiziko deialdi honetan ez da eskaintzarik aurkeztu.

Aurtizko frontoiko teilatua berritzeko deialdi-

an, aldiz, bi enpresa aurkeztu ziren, eta Udalak Mindegia zurgindegiari esleitu dizkio lanak. Teilatua osorik moldatu beharko du Aurtizko zurgindegiak.

## HODITERIA

Ur depositutik sarrera doan hoditeria nagusia berritzeko asmoa ere badu Udalak, eta lanak esleitu ere egin ditu. Hiru enpresa aurkeztu ziren deialdi honetan, eta Sasoik egingen ditu. Obrak hasitakoan, sei aste epea izanen du akitzeko.

## Urteurreneko meza eta organoa afinatua

Sortzez iturendarra den Aurelio Sagaseta Ariztegi apezak eta gaur egun Iruñeko Katedralaren Musika Kapera koruko zuzendariak denak



ARGAZKIA: HERRI KIROL FEDERAZIOA

## Joakin Aioroa, ingudearen maisu

Garaipenez garaipen dabil Joakin Aioroa, gelditu gabe. Iparraldeko Joko Torneoan eskuratutako lehendabiziko postuaren berri eman genuen aitizinekoan, eta orain Nafarroako txapela lortu duela aipatuko dugu. Iruñeko Sanferminetan, uztailaren 10ean, 18 kiloko ingudeari ahalik eta altxaldi gehien eman behar izan zikion Aioroak, minutu eta erdiko denboran, eta 92 altxaldirekin bera izan zen nagusi. Joan den urtean ere bera izan zen txapelduna, 91 altxaldi egin da, eta beraz, aurtengo Nafarroako Ingude-Altzatze Txapelketan hobetu egin du iaz lortutako emaitza. Bigarren gelditu zen Xabi Sein igantziarrak baino hiru jasoaldi gehiago egin zituen.

Urrezko Ezteiak egingen ditu aurten, eta hori dela-eta, uztailaren 27an urteurreneko meza berak emanen du San Martin Elizan. Elizkizunean aipatu abesbatza etortzekoa denez, organoa afinatu behar izan da.

## Ander Erasun igandean Elizondon

Igande honetan, uztailak 25, Euskal Herriko II. Mailako Aizko-

ra Txapelketako kanporaketa jokatu da Elizondon eta lehian ariko diren 12 aizkolarien artean, Ander Erasun aurtiztarra ariko da. Kanporaketa Laxo Plazan jokatu da, 19:30etik aitzinera.

## Arkaitz Untxalo pilotan

Lehen ere erakutsi izan du pilotan ederki moldatzen dela Arkaitz

Untxalok, eta berriki ere bertze garaipen batekin etorri da. Baztango Txaruta Pilota Eskolan dabil eta uztailaren 4an, Baztan eta Uharteren arteko lehian han izan zen, Nafarroako Herriarteko Pilota Txapelketaren finalean. Infantilen mailan, David Albiasu lagun zuela 18-6 irabazi zuten partida. Emaitza erabakiorra izan zen txapela Baztan aldera joateko.

**APARAN, S.A.**  
BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...



Tel: 948 456 080  
Fax: 948 450 334  
**DONEZTEBE**

 **bentamiguel**  
denda, jatebexa eta ostatua

Ongi zaindutako sukaldaritza  
Menuak aukeran

Tabakoa  
Likorrak  
Janaridenda  
Urdaitegia

Ibardingo Lepoa · 948 631 209

**KIROLA** → NAFARROAKO III. MAILAKO TXAPELKETA

## Finalerako txartela lortu du Joxe Antonio Loiarate aizkolariak

Kanporaketan bero gogorriari aurre egin behar izan zioten Loiaratek eta Indakoetxeak

### Fermin ETXEKOLONEA

Iruñeko Sanferminen barne jokatu zen Nafarroako III. Mailako Aizkora Txapelketako kanporaketa eta hantxe aritu ziren lanean bi herritar: Jose Antonio Loiarate eta Mikel Indakoetxea. Esperientziaduna lehena eta debutaria bestea.

Bi kanaerdiko moztu behar izan zituzten, baina horrez gain, uztailearen 8ko eguerdi hartan egin zuen bero haundiari ere gogor egin behar izan zioten aizkolariak.

Loiarate ederki moldatu zen, eta 4:41:01-

eko denbora eginez, bera izan zen hamaika aizkolarien artean lanak akitzen lehendabizikoa. Honenbestez, abuztuaren 29an Arzurin jokatu den Nafarroako III. Mailako finalera sailkatzea lortu zuen.

Indakoetxeak, ordea, ez zuen bere eguna izan. Temperatura altuen eta lehen aldiko urduritasunen eragina nabaritu zuen, baina hala ere, bere lana akitu zuen. Nahiko meritua bada kanporaketan parte hartzea bera.

### Txitxiloko bideko lanak akituak

Txitxiloko bidean egin beharreko moldatze lanak akitu dituzte. Udalak deialdira aurkeztutako lau enpresen artean, Nartarteko Luciano Iriarteri esleitu zion obra eta honek iragarritako epean egin ditu lanak.



ARGAZKIA: FERMIN ETXEKOLONEA

### Hasi dira Uhaldeko teiltatuko lanak

Bere garaian iragarri bezala, hasi dira sekretarioaren etxeko edo Uhaldeko teiltatu konpontzen. Uztailearen 10ean hasi ziren eta egunero izaten da zeregina. Santesteban zerrategikoak ari dira egur lana egiten, baina horiez gain, ia egunero 10-12 lagun elkartzten dira auzolanean aritzeko. Emakumezko zein gizonezko, denak ari dira Uhaldea itxuraberritua geldu dadin borondate osoz esku bat botatzen.



ARGAZKIA: FERMIN ETXEKOLONEA

### Aitor eta Haritz pilotan

Aitor Agesta eta Haritz Aragoi ditugu argazkiko protagonistak, gaztetxoak izanagatik ere, biak ere pilotan ederki moldatzen direnak. Patxi Ordokirekin aritzen dira entrenatzen Donezteben, eta duten adinerako oraindik deus esateko goizegi bada ere, nori daki! Pilotari haundiak izanen ote ditu Zubietak etorkizunean?

## HOBETO bizi!

- Eskailerek igotzeko aukak, plataformak, igogailuak
- Gurpil-auñak, makuluak, taka-takak
- Banugelen egokitzea
- Higijene pertsonalerako tresna egokituak
- Janzten laguntzeko tresnak
- Etxeko tresneria egokituak
- Segurtasunerako alarmak
- Telefono bereziak
- Errehabilitaziorako artikulak
- Joku bereziak

[www.hobetobizi.net](http://www.hobetobizi.net)

Fuenterrabia, 37.aren parean • IRUN • T. 943 633 014

### Bidali ttipi-ttapa

heritik kanpo  
bizi diren lagun  
edo familakoei

(0034) 948 63 54 58



## GAZTELU

BESTAK → ABUZTUAREN 3TIK 7RA

# Oihan Larretxea eta Ander Erasun aurrez aurre ariko dira aizkoran larunbat eguerdian

Asteartean hasi  
eta larunbatean  
akituko dira  
Santo Domingo  
bestak

## ORTZEGUNA 5

**09:00etan** gosaria.  
**11:00etan** haurren-  
dako jokoak. **14:00etan**  
herri bazkaria. **Arratsal-  
dean** dantzaldia AGE-  
RRALDErekin.

## ASTEARTEA 3

**20:00etan** suziriak. **On-  
dotik** herriko trikitilariak  
herria alaitzen ibiliko di-  
ra. **21:00etan** zopak He-  
rriko Ostatuan.

## ORTZIRALA 6

**10:30ean** kalejira herri-  
ko trikitilari eta buru-  
haundiekin. **11:00etan**  
haurren dako jokoak.  
**18:00etan** trikitixa  
saioa. **Arratsaldez eta  
gauetz** dantzaldia AGE-  
RRALDErekin.

## ASTEAZKENA 4

**11:30ean** Meza Nagu-  
sia. **Ondotik** salda He-  
rriko Ostatuan. **17:00-  
etan** partxis txapelke-  
ta. **18:00etan** pilota par-  
tidak. **19:30etik 22:00-  
etara** dantzaldia AGE-  
RRALDErekin.

## LARUNBATA 7

**10:30ean** kalejira triki-  
tilari eta buruhaundie-  
kin. **13:00etan** aizkora  
apustua: Ander Erasun  
Oihan Larretxearen kon-



ARGAZKIAK: FATIMA MITXEO

Haur, gazte zein helduek izanen dute aurten ere ongi pasatzeko aukera.

tra. **Arratsaldean** hau-  
rrendako puzgarriak.  
**17:00etan** mus txapel-

keta. **22:00etan** gazte  
afaria. **Arratsaldez eta  
gauetz** dantzaldia GA-

RRAXI taldearekin. **On-  
dotik** GAIXOA NI, bes-  
tei akabera emateko.

**TXARUTA, S.L.**  
Iturgintza · Berokuntza · Gasa  
*ongi pasa bestaki!*  
948 45 17 28 • 659 77 00 15  
GAZTELU

**CARLOS  
GARAIKOETXEA  
ETXENIKE  
abokatua**

Santiago, 59 2C  
ELIZONDO  
T. 948 581 468  
M. 630 354 818

Eskalerak igotzea... ez da aztopal  
plataformak  
igogailu bereziak  
aulki bereziak...

**behetik**

Añorga-txiki, 14 • T. 943 368 781 • 671 073 888  
www.behetik.com

EHIZA → PRESTAKETAK

## Ehiza postuen enkante publikoa eginen da uztailaren 31n

Ehiztariak eguerdian bilduko dira udaletxean

### Iñaki TELLETXEA

Udan bete-betean sartuak gaude oraindik, baina herrian udazkenari begira gaude dagoeneko. Aurtengoan herriko uso postuen aprobetxamendurako enkantea egitea tokatzen da eta hori, ahozko posturen bidez laster izanen da. Uztailaren 31n, larunbata, 12:00etan udaletxean eginen da. Enkatean ateratzen diren zortzi ehiza esparruak bi urtetarako adjudikatuko dira.

### HASIERAKO PREZIOAK

Uso ehizako postu hauen hasierako prezioak hauek izanen dira: Golbaiko 11 postuak 30.000 euro, Uztalakortako 8 postuak 12.000 euro, Bidakorriko 14 postuak 9.000 euro, Labeagako 7 postuak 4.000 euro, Bidasostako 10 postuak 5.000 euro, Txarutako 7 postuak 6.000 euro, Ubedoko 6 postuak 1.500 euro eta Argibelko 8 postuak 2.000 euro. Ubedo eta Argibeleko esparruak izan ezik, gainerrako guztiek beraien txabolak daukate.

Enkatearen baldintza plegua Herriko Etxerako idazkaritzan eskura daiteke astelehen, as-



ARGAZKIAK: IÑAKI TELLETXEA

Ezkerreko argazkian Txarutako ehiza postua ageri da, eta eskuinean, goitik beheri, Bidasosta, Labeaga eta Txarutako txabolak.

teazken eta ortziraletan 12:00etatik 15:00etara.

### Ganbera musika

Nafarroako Gobernuak antolatzen duen Cultur 2010 programa-

ren barne, ganbera musikaz gozatzeko aukera izanen dugu udan. Uztailaren 16an, errarterako, Bostarte Haize boskoteak musika emanaldia eskaintzekoa zu-

en Jauregia dorrean. Eta abuztuaren 27an, Baso Continuo hirukoteak flauta, gitarra eta klarinete doinuak eskainiko ditu, 19:30ean Jauregia dorrean.

*edredoi fundak*  
*albormozak*  
*edredoi nordikoak*  
*ohe estalkiak*  
*mainalireak*  
*mantelak*  
*kuxinak*  
*toailak*

**UDABERRI-UDA KOLEKZIO BERRIA**

1951tik  
**Casa Cambra**  
lentzeria-etxea

Tafalla, 13 • IRUÑEA  
948 230 634

## URROZ

OSPAKIZUNAK → JOAN DEN URTEAN BEZALA

# Herriko gazteek bazkaria egingen dute uztailaren 31n Leurtzan

Egun berean, lau lagunek lehia ttiki bat egingen dute

## Joseba URROTZ

laz egin zen bezala, aurten ere uztailaren 31n, larunbatarekin, bazkaria antolatu dute herriko gazteek Leurtzako urtegieta. Baina, aitzinetik, egitaraua osatzeko, apustua ez bada ere, lehia ttiki bat izanen da herriko bikoteraren artean.

Bikote bakoitzak hainbat enbor moztu beharko ditu aizkoraz, eta urtegi inguruan, zazpi kilometroko luzera duen itzulia bi aldiz egin beharko du.

Gosea egiteko lan ederra. Ondotik, seguraski, gehienek Beintza-

Labaiengo bestak bertan direla aprobetxatuko dute, Foru Poliziak bidea tratatzen ez bada behinik behin.

## Bisita gidatuak Leurtzan

Uda honetan ere, Leurtzako urtegieta bisita gidatuak egingen dira, Bertizko Partzuergoak Beintza-Labaien eta Urrozko Udalen laguntzarekin antolatuta. Guttieneko taldea osatuz gero, aste osoan goizez edo arratsalde, ordu erdiko bisitak egingen dira.

Horrez gain, aipatu, beheitik urtegiaren inguruan elbarrituendako bi kilometroko ibilbidea egokitua dagoela eta Nafarroako Gobernuak aurten ez duela sua egitea debekatu.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Uxue eta Amaia fin trikitixa eta panderetarekin

Trikitixarekin eta panderoarekin ederki moldatzen direla erakutsi dute berriki Amaiak eta Uxuek. Baztan, Malerreka eta Bidasoako XIII. Trikitixa Txapelketa jokatu zen uztailaren 4an Lesakan, eta 12 urtetik beheitikoen kategorian, Uxue Matxiñena herritarrek bigarren postua eskuratu zuen Amaia Mikelarena oiztarra lagun zuela.

Beraz, hango parrillak erabiltzeko moduan daude. Dena den, pira-

gua, kanoa eta ur ontzien erabilera debekatu dago, baina koltxo-

netak, flotadoreak eta antzekoak baimenduak daude.



- Eskopeten salmenta eta konponketa
- Ehiza eta arrantza gaiak
- Ehiza baimenen tramitazioa

armadenda

andueza 

Paotxa Eraikina • Gorostiaga, z/g • Anaka Industrialdea  
T. 943 66 72 67 - F. 943 66 71 91 • 20305 IRUN  
c.andueza@euskalnet.net

AZPIEGITURAK → 1727AN ERAIKIA IZAN ZEN

## Santa Kruz ermita goitik behera zaharberitu dute herritar batzuek

Juanita  
Mariezkurrenak  
eta bere familiak  
egin dute

**Fernando ETXEBERRIA**

Juanita Mariezkurrena eta bere familiaren lan gogotsu eskuzabalari esker, Santa Kruz ermita erabat itxuraberritua gelditu da. Ermita hau 1727an eraiki zen, beste bat ordezkatzuz, Udalaren orduko aktaren arabera, egoera txarrean eta herritik urruti –Baztanea bordaren ondoan– zegoena ordezkatzuz, hain zuzen.

Lan handia egin du Juanitak, lurzorua garbituz, paretak pintatuz eta

banku, koruko eskailera eta sarrerako ateari ber-niza emanaz. Familia arduratu da kanpokaldea pintatzeaz.

Eta zaharberitze lan hauen ondotik, ermita oso ederra gelditu da. Legezkoa da egindako lan luze, gogorra eta zuzena goraiatzea. Hemendik aurrera, elizkizunetarako, ezkontzetarako eta San Migeli harrera egiteko toki egokia izanen da.

### Txantxangorri Elkartearen bi ohar

Ehiza denboraldiari begira, hasi dira prestatzen ehiztariak ere eta uztailaren 31n, urteroko bilera eginen du Txantxangorri elkarteak, 17:00etan Muxaikoko txabo-



ARGAZKIAK: F. ETXEBERRIA  
Santa Kruz ermita  
itxuraberritua.

lan. Kontuen aurkezpena, altak eta bajak, postuen egoera eta bestelako gaiak aztertuko dituzte.

Bestalde, abuztuaren 17an usakume tirada bat egingen da Txantxangorri elkarteko arduradunek eta Udalak antolatuta. 10:00etan hasiko da, baina parte hartu nahi duenak uztailaren 25a baino lehen apuntatu beharko du Barranka Ostatuan.

### Mendi itzulia

Gure mendietan barna egin den lehen mendi itzulia egin zuten mendizale batzuek uztailaren 4an. Frontoitik abiatu eta Malon barna –bi trikuharrira daude hemen– Erakurrira igo ziren (1.142 metro). Gero, Ezkaindik pasatuz, Olegiko harrespila ikusi zuten, baita Iruñarriko menhira ere, Euskal Herriko onenatarikoa. Ehiztarien bidetik eta Kastenea bordatik jaitsiz, Barranka Ostatuan bildu ziren. Xorroxin Irratiaren interesari esker, beste irteera bat antolatuko da Ezkurratik Zubietara. Baina lerro hauek



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

### Frontoiko obrak

Festak gainean ditugunez, zenbait konponketa eginen hasi da Udala frontoian. Duela hilabete batzuk, haizetearen ondorioz, teilatu zati bat erori egin zen. Argazkian ageri den bezala, kaltetutako zatia konponetzen ari dira. Horren ondotik, lurzorua berrituko dute.

idazterakoan, oraindik zehaztu gabea zen eguna.

### 2009ko egur loteak

Pago egurraren salmenta izan da urteetan Udalak gastuei aurre egiteko izan duen diru-iturri nagusia. Baina krisi ekonomikoaren eraginez, aste egun du behera eta saldu ezin den egur hori herritarrentzako erabiltzen

ari da, ondo etorriko baita neguan etxea berotzeko.

Bestetik, joan den urteko egur loteak traktore txikiekin joateko toki zailean zeuden, baina Jaime eta bere bi lankideen lanari esker, zelai batera ateratu dituzte. Herritar batzuk nahi duen neurria moztu ditzake orain, eta etxera ekarri gero.

ASISTENCIA DOMICILIARIA  
**ZENTURIA**

Zure zerbitzura eguneko 24 orduak...  
... urteko 365 egunak

- Arreta pertsonalizatua - garbitasuna - Jaiki Oheratu
- Familia-laguntza - etengabeko laguntza
- Etxeko laguntza - garbitasuna - konpainia
- Fitoterapiak - produktu naturalak
- Fisioterapia - errehabilitazioa etxean
- Asteburuak - familiarren atsedena
- Gauak - ospitalea/etxea
- Barneko langileen kudeaketa
- Prestazio ekonomikoaren kudeaketa (mendekotasun legea)

ZENTURIA-rekin ETXEAN BEZALA  
.....INON EZ!

Telefonoak: 943 639 049 - 656 737 698  
ayudadomiciliaria@zenturia.es  
www.zenturia.es



*Neurrira egindako leihoak  
Diseinu eta modelo ezberdinak  
Banakako soluzioak  
Isolamendu termiko eta akustikoak  
Energia aurrezpenak*

**Ordoki industrialdea • ARIZKUN**  
Tel. 948 453 259 • Fax. 948 453 423  
betikopvc@betikopvc.com  
www.betikopvc.com

**PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa salmenta eta instalazioa**



**OBRA BERRIETAN ETA BERRIKUNTZETAN ESPEZIALIZATUAK**



UDALA → ENERGIA ITURRI BERRIAK

## Baso-biomasa ekoiztuko lukeen instalakuntza paratzea eskatu du Udalak

Aurkeztutako proiekturik garestiena da baina begi onez jo dute udalek eta Nafarroako Gobernuak

### Esteban AROTZENA

Europar Batasunak eta Espainiako Gobernuak sustatuko Landa Garapen Jasangarriaren Planaren barnean, aurkeztutako proiekturik garrantzitsuenetarikoa Goizuetako Udalak proposatutakoa da: baso-biomasa ekoizteko instalakuntza.

Proiektu hau aurrera aterako balitz, irteera duina emanen omen litzaioke egurraren krisiaren eta intsignis pinua eraso duen gaitzaren erruz, basoa jasaten ari den egoera larriari. Berogailu eta la-beetako erregai bezala erabiltzen den baso-biomasa etorkizuneko produktua da adituen ustez. Beraz, eta egur

mota guztiek balio dutenez horretarako, gaur egun ez bezalako erren-tagarritasuna lortuko luke orokorrean basoaren jabeak.

7,5 milioi euro erabiliko dituzte goian aipatutako bi erakundeek Nafarroako Mendialdeko zenbait bailaretarako (Malerreka, Larraun, Leitza, Goizueta...). Biomasa da aurkeztutako proiektuen artean garestienetakoa (ia 2 milioi euro), baina hala ere, begi onez jo dute proposamena gainerako udalek eta Nafarroako Gobernuak.

Instalakuntzaren kokapenari buruz ere hitz egin dute alkateek orain arteko bileretan, eta Aresoko industrialdearen aldeko joera nagusia omen da Lekuona alkateak esan digunez, ekoiztutako erregaia kontsumituko lukeen industria inguruan edukitzea komeni delako, beste zenbait arrazoiaren artean.

Hurrengo hilaren 13an egin lezake atze-aurrera gure herriaren-

### KOKAPENA

**Baso-biomasaren instalakuntza eginen balitz, Areson kokatzearen aldeko joera omen da nagusi.**

tzat hain garrantzitsua den gai honek (zonaldeko gainerako herri guztiek batera baino baso gehiago du Goizuetak), egun horretan elkartuko baitira honekin zerikusia duten erakunde guztietako ordezkariak.

### Zapateroren plana

Zapateroren plana medio, gure herriari tokatzen zaizkion ia 65.000 euroak plazako

eta Kale Nagusiko argiteria hobetzeko erabiliko dira, lehen ez zegoen hainbat lekutara argia eramanez, kontsumo baxuko bonbilak paratuz eta abar. Amabirjinetarako bukatuko dituz gainera lanak Elur Instalaciones Electricas enpresak.

### Arkupeak-ekoen irteerak

Milagros Arkupeak-eko arduradunak jakinarazi digunez, herriko jubilatuek bi irteera eginen dituzte ondorengo asteetan: hurrengo astelehenean, Aralarrera eta Gorraizko gaztelu-

ra, eta biharamunean, hilak 27, Aragoiko Pirinioetara. Lau eguneko bidaiak izanen da azkeneko hau.

### Eskolako bloga

Eskolan ere Interneteko saltoa egin dute. Orain arte ikasturte bukaeran eskolako aldirik egiten zuten, baina azken ikasturte honetan, teknologia berriak baliatuz, blog bat sortu dute irakasle eta DBHko ikasleen artean. Ikusi nahi duenak hauxe du helbidea: <http://centros.educacion.navarra.es/cpgozuet/blog/>.



ARGAZKIA: ISKIBI KAMPINA

### Freskatzeko aproposa

Nahi duenarentzat eguzkia, nahi duenarentzat itzala, Urumearen ur gardenen freskura, kanpinaren zerbitzuak... Udako egun pasa eder baterako baldintza guztiak betetzen ditu Iskibikoek egin duten bainatzeko eremuak.



### Baiatzinikin...

Herriko Etxeko artxiboa Iruñera eraman dutela digitalizatzea eta Informatika El Corte Ingles enpresa ari dela lan hori egiten?

**suteia**  
INSTALAZIOAK

igogailuen instalazioa

Erlategi Plaza, 8 bajo ELIZONDO (Na)  
Tel.-Fax: 948 452557 M: 649 699 820/810  
suteia@suteia.com



Gremio guztiak koordinatuz eta proiektuaren ardura hartuz, zure igogailu instalatzen dizugu

## LEITZA

GIZARTEA → ORDENANTZA BERRIA

# Hileta zibilak baimentzeko eta egiteko araudia onartu du Udalak

Lokal publikoetan hildakoei agurra emateko aukera eskaini nahi zaio gizarte zibilari

## TTIPI-TTAPA

«Gizarte zibila osatzen duten familiarteko, lagun eta hainbat erakunde eta entitatek beren hildakoei lokal publikoetan agurra edo omenaldia egiteko baimena» ematen duen ordenantza onartu du Udalak. Alegia, hileta zibilia baimentzeko eta egiteko araudia onetsi du. Herriarren askatasun ideologikoa, erlijiosoa eta gurtzari dagokion bermatu nahi da horrela.

Leitzan erroldatutako herritarrek eta lehen mailako odolkidetasunerainoko haien senideek izanen dute hileta zibilerako aukera, aurretik beharrezkoa den dokumentazioa aurkeztuta.

Alkateak edo honen ordezkari zinegotzi edo funtzionarioak finkatuko ditu hileta zibilerako eguna eta ordua, baita zein egoitza erabili ere. Apar-

teko egoerarik ezean, udaletxeko osoko bilkura aretoa erabiliko da.

Asteleheneetik igandera eginen dira hileta zibila, 09:00etatik 14:00etara edo 17:00etatik 21:00etara. Zerbitzua erabiltzeagatik, Udalean erroldatuak daudenek 50 euro ordaindu beharko dituzte, eta ez daudenek 100 euro.

## Kubatar gaua Aurreran

Kubari eskainitako eguna antolatu dute Aurreran uztail bukaerarako. Hilaren 30ean eta 31n 18:00etatik 20:00etara Kubari buruzko Idoia Zabaletaren argazki erakusketa izanen da. Argazkiak abuztuaren 12an ikusgai egonen dira, baina bazkideentzat bakarrik.

Eta uztailaren 31ko gauean, kubatar afaria eginen da. Hau izanen da menua: arroza eta frijoleak, yucca, platano frijitua, oilaskoa saltsa kubatar erara eta mango sorbetea, baita ardoa, sagardoa, kafea, kopa... ere. Afalondoren, kubatar musika eta mojitoa izanen dira.

Txartelak hartzeko azken eguna uztailaren 28a da eta Txoko tabernan hartu behar dira. Bazkideek 12 euro eta ez direnek 15 euro ordaindu beharko dituzte.

## Aguazila hartzeko deialdia

Albindea edo aguazila



ARGAZKIAK: ASIER IMAZ

## Neska-mutikoen gozamina

Udako tailerretan, sukaldean eta euskal mitologia ezagutzen topatu genituen neska-mutikoak joan den astean. Aste honetan, papera gora eta behera eta sukaldean ibiliko dira eta uztaileko azkenekoan sormena landuko dute.

kontratatzeko deialdia egin du Udalak. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik aurrera 30 egun izanen dira apuntatzeko, baina lerro hauek idazterakoan, oraindik argitaratu gabea zen. Baldintza plegua udal bulegoetan eskura daiteke.

## Animalia arriskutsuak

Animalia arriskutsuak edukitzeko araudia ere onartu du Udalak. Mota honetako animaliak izateko lizentzia tramitatu beharko da Herriko Etxean.

## Bordak, txabolak estalpeak...

Uztailaren 9ko batzurrean erabaki zuen Udalak, bordak, txabolak, estalpeak eta portxe edo teilapeak egiteko araudia onestea. Nafarroako Gobernuaren begi ona jasoz gero, indarrean sartuko da eta Xabier Zabalo alkateak azaldu digunez, «aukera berriak irekiko ditu. Orain arte egin ez zitezkeen eredu urbanistikoak egiten ahaliko dira». Adibidez, 300 metrotik gorako baratzetan 3x3 neurriko txabola prefabrikatuak jartzeko aukera izanen da.



ARGAZKIA: XABIER ZABALO

## Trenbidean etenik gabe ibiltzeko aukera

Plazaolako trenaren bidea etenik gabe egiteko zegoen arazoa konpondu da. Telleri parean, eroritako tunelaren saihetsetik bide berria ireki da, eta orain, errepidera atera gabe ibil daiteke jendea.

## Gaztetxearen V. urteurrena

Atekabeltza Gaztetxea ireki zenetik bost urte bete dira astearte honetan, eta urteurrena ospatzeko, aste osoan ekitaldiak izanen dira.

Astelehenean, Palestinaren inguruko hitzaldia izan zen eta asteartean, *Itsasoaren alaba* dokumentala eta parrillada. Asteazken goizean, mendi irteera egiteko zuten Usategietara. Eta etxolan lo egin ondoren, ostegun goizean bueltatuko dira herrira. Arratsaldean mahai-ingurua izanen dute Gaz-

tetxean, eta duela 20 urte baino gehiago itxi zuten lehengo Gaztetxeako kide bat izanen da partaide.

Ostiralean, 22:30ean, Gaztetxean antolatutako korto lehiaketako bideoen proiektzioa eta sari banaketa eginen dira. Etalaren batean, egun osoko ekitaldiak izanen dira. Goizean, kalejira, poteoa, bazkaria, brindisa eta bazkalondoan, hip-hop taldea eta breakdance dantzakizanen dira eta gauean kontzertua.



HIRI-HONDAKINAK → MENDIALDEA MANKOMUNITATEA

# Zabor zerbitzuarekin sortu diren arazoak konpontzeko neurriak iragarri dituzte

Kezkak eta kexak azaltzeko bilera egin da arduradunekin

**Ainhoa ANSA**

Mankomunitatearen zabor bilketa sistema berria dela eta, jendearen artean sortu ziren zenbait kezka eta zalantza argitzeko beharra sortu zen. Herritar asko bilduta, Mankomunitateko lehendakaria den Xabier Zabalori deia egin zitzaion, kezka eta kexa hauei irtenbidea emate aldera, herritarren aurrean argibideak eman zitzaion.

Uztailaren 1ean elkar-tu ziren herritarrak udal ordezkariekin eta Manko-

munitateko lehendakariarekin. 20 lagun baino gehiago elkartuta argibide hauek eskatu ziren:

Batetik, edukiontzien kokapenarekin asko ez daude ados. Herrian jarri den puntu bakarra gutxiegi dela diote askok, eta gainera gunetik urrutiegi gelditzen dela. Edukiontzi gutxiegi dagoela zen beste kexa; berehala betetzen direla eta zabor poltsak kanpoan utzi behar izaten direla.

Bestalde, maiatzean izan du Aranoko jendeak zerbitzu honen berri Mankomunitateko zuzendutako karta baten bidez. Zerbitzua ere (edukiontziak eta gainerakoak) maiatzean jarri dute martxan. Baina kuota urtarri-

letik zerbitzu hori jaso bari-lute bezala kobratu da. Kobratu ere inolako abisu edo kontsultarik gabe egin zaielako daude kexu herritarrak.

Guzti honen aurrean, Udalaren erantzuna honakoa izan zen: lehengo urtean udaletxeko tabloian anuntzioa jarrita egon zela ikusi nahi zutenarentzat. Nafarroako Aldizkari Ofizialean ere jarrita omen zegoen. Jende askok, ordea, ez du horrelakoetan begiratze-ko ohiturarik.

## HERRITARRAK KEXU

**Edukiontziak puntu bakarrean daudela eta gutxiegi direla kexu dira herritarrak.**

Mankomunitatearen aldetik, berriz, argitasun hauek eman ziren: Europatik datorren legea da zabortegiak itxi egingo direla eta Mankomunitatek irtenbide hau eman nahi izan zaio arazoari.

Edukiontzi gehiago jarri litezke, baina kokapenak mantenduz. Garesti ateratzen da puntu gehiago jartzea. Zulo txikia duten edukiontzien arazoak konturatuta, haundiagokoak eskatuta dituzte eta jarriko dituztela agindu dute.

Mankomunitatea urtarritik hasi zen zerbitzua antolatzen eta gastuak egin dira (kamioiak, materiala, edukiontziak, gestioa, ikerketak...) dena martxan jartzeko. Kuo-

ta nahita nahiez ordaindu behar da ondorioz, nahiz eta informazioa berandu bidali dutela aitortu. Irailetik aurrera zerbitzuak hobeki funtzionatuko duela agindu zuen Zabalok, bi kamioi gehiago eskatu dituztela, besteak beste. Urtea bukatzerako sistema berriaren datuak eskuan, sortu diren arazoak konpontzeko neurriak hartuko dituztela esan zuen.

Etekinak noizbait lortuko balira tasak jeitsiko direla ere aipatu zuen, baina hori oraingoz ez da gertatuko. Konposta egiten dutenek ere datorren urtetik aurrera %20 gutxiago ordaindu dezaten aztertzen ari direla gaineratu zuen.

## ARESO

UDALA → BERRIKUNTZAK AURTEN

# Egur loteak ateratzeko hiru aukera izanen dira

Ohiko sistemaz gain, beste bi proposatu ditu Udalak

**Juana Mari SAIZAR**

Sutarako egur loteak lehengo urtekoen segidan markatu dituzte Urte Zahar parajeetan. Pista asko egin dituzte, sei inguru, lotea ateratzeko erraztasuna handitzeko eta aurtengoan berrikun-

tza bezala, Udalak hiru aukera emango ditu: lehena, urterokoa da, bakoitzak bota eta bere lotea ekarri. Bigarrenean, Udalak lotea bota eta pisten ondoan jarriko luke egurra, 40 euroren truke. Eta hirugarrenean, Udalak egurra etxeraino ekarriko luke, 120 eurotan.

Merku aldean, haritz eta pagoak atera ditu Udalak eta Zabaleta enpresak egingo du lana. Otsailean eroritako



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

## Uztaileko goizak kirola egiten

Gisa bateko eta besteko kirolak egiten dituzte goizero Maitane begiralearekin neska-mutikoez. Uztail bukaera arte ibiliko dira horrela.

izei gorri dagokienez, Nafarroako Gobernuak baimena eman du ateratzeko eta badago erosteko.

## Kirol kontuak

Euskadiko Sokatira Txapelketan, bigarren izan da Areso 600 kiloko-en mailan. Eta aizkoran,

Nafarroako III. Mailako Txapelketako finalerako txartela lortu du Asier Pellejerok. Abuztuaren 29an jokatu du Arazurin.

# BAZTAN

**BESTAK** → ABUZTUAREN 7TIK 11RA

## Baztango lehen basurdekume harrapaketa eginen da Zigako bestetan

Abuztuaren 7ko txupinazoarekin hasiko dira bortz eguneko bestak

keta herrikoia. **17:30etan** Baztango lehenengo basurdekume harrapaketa. **19:00etan** dantzaldia AGERRALDEekin. **22:00etan** afaria Herriko Ostatuan.

### LARUNBATA 7 Bezpera

**12:00etan** txupinazoa. **14:30etan** herri bazkaria musikaz alaituta. **19:00etan** dantzaldia JALISKO BAND taldearekin. **21:30etan** Etxezuriko Baztan Zopak. **00:30etan** gaupasa JALISKO BAND taldearekin. **06:00etan** gosaria xingarra kerrenian erreta eta goizaldeko bertso saioak.

### IGANDEA 8

**08:00etan** dianak herri eta auzoan barna. **11:00etan** mus txapel-

### ASTELEHENA 9 Haur eta Gazteen Eguna

**08:00etan** dianak herri eta auzoan barna. **10:00etan** gazteen gosaria Herriko Ostatuan. **12:00etan** gazteak etxez-etxe puxkak biltzen kalejiran. **13:00etan** haurren bazkaria. **16:00etan** haurren jokoak, puzgarriak eta zezen mekanikoa. **20:00etan** dantzaldia AGERRALDEekin. **20:30etan** zezen mekanikoa gazteentzako irabazleak sari ederra izanen duela iragarri dute antolatzaileek-. **22:00etan** andreen afaria gizonak haurrak zaintzen utzi-



ARGAZKIAK: ARANTXA GAMIO

Umorea behintzat ez da falta izaten Zigako bestetan. Begiratu bertzela argazkiei...

**00:30etan** dantzaldia AGERRALDEekin. **06:00etan** gosaria azken errestendako, txistorrada.

### ASTEARTEA 10 San Lorentzo Eguna

**08:00etan** dianak herri eta auzoan barna musikaz alaituta. **11:00etan** Meza Nagusia. **12:00etan** luntx herrikoia plazan. **12:30etan** aizkora apustua: Ruben Saralegi-Felix Etxeberria. Horrez gain, Joxe Antonio Etxe-

berriak aizkora erakustaldia eginen du, eta Migeltxo Saralegi harri-altxatzen ariko da. **19:30etan** Chuchin Ibañez eta bere mariatxiak. **21:30etan** joaldunak eta txalaparta doinua plazan. **22:30etan** afaria frontoian. **00:30etan** dantzaldia AGERRALDEekin. **06:00etan** gosaria lorik egin nahi ez duenarendako.

### ASTEAZKENA 11 Zikiro Eguna

**08:00etan** dianak he-

ri eta auzoan barna. **14:00etan** zikiro-jatea musikaz eta herriko bertsolariez alaituta. **20:00etan** dantzaldia AGERRALDE akordeoi-lariarekin. **00:00etan** GAIZUA NI. **01:00etan** gaupasa pribatua Zigako xoko beroan.

### OHARRA

Herri bazkaria, Baztan Zopetara edo zikiro-jatera joateko aitzinetik hartu beharko dira txartelak.

**ETXEZURIA**  
Landa etxea - Janaridenda  
myi gaurtu  
leotaki  
Kalteteko pentu banatzailea  
alibaitari zerbitzuarekin  
Zure herriko denda, zure etxetik harbil  
egunero irakite  
Tfn: 948 452 078  
Triputxin karrika - ZIGA

**SOULE**  
hileta artina  
Tfn: 948 453 444  
Mda: 929 559 583  
AZKOR

**ZURGINA - EBANISTA**  
**Beorlegi**  
DONAMARIA - Tel: 948 45 15 53 - M: 657 79 96 88

- EGUR LANAK
- ATEAK, ZOLAK
- ARMAIRU ENPOTRATUAK
- SUKALDEAK
- NEURRIRA EGINDAKO MOBLEAK

Seriotasuna, ekonomia eta azkartasuna  
Eskatu surretik konpromezurik gabe

GIZARTEA → ESPETXE ZIGORRAREN ORDEZKO NEURRIAK

# Zigorra betetzeko, orain arte 15 baztandarrek egin dituzte lanak gizartearentzako

Udalak 2009az geroztik eskaintzen du aukera hori

## TTIPI-TTAPA

Delitu arinen bat tar-tean dagoenean, espetxe zigorraren alternati-betako bat gizartearen-tzat lan egitea izaten da. Eta Baztanen halaxe egi-ten dute batzuek, trafiko-aren segurtasunaren kontrako delitua egitea-gatik edo multak ez ordaintzeagatik zigorra bete behar dutenean.

2009an Udalak eta Nafarroako Espetxeeta-ko Gizarte Zerbitzuek sinatutako hitzarmenaren bidez, Baztanen gizarte-arentzako lanak eginez bete dezakete zigorra, espetxearen ordezkotako neurri gisa. Izan ere, Udalaren irudiko, «hagitz garrantzitsua» da baztandarrei zigorra inguruan betetzeko eta hemengo erakundeek kudeatutako jardueretan aritze-ko aukera ematea. Hala, 15 dira orain arte gaztigua gisa honetara bete duten baztandarrak.

Zigorra betetzeko lanak toki hauetan eskaintzen zaizkie: Elizondoko Francisco Joakin Iriarte zahar-etxean, Giltxaurdi udal igerilekuan, mantenimendu lanak, garbiketala lanak, basoko lanak... «Horrelako lanak Baztanendako onuragarriak dira», adierazi dute Udaletik.

## Aldaketak Elizondoko bestetan

Ortziral honetan hasi eta astezakenean akituko diren Elizondoko bes-ten inguruan, ohar batzuk jakinarazi ditu Xabi Torres Elizondoko alka-teak. Alde batetik, **Foru Plaza** ibiltzeko moduan egonen da, baina karga haundia jasateko oraindik prestatua ez dagoenez, ekitaldi batzuk hor eta gainerakoak Merkatuko Plazan egingen dira.

Horrez gain, **Meza Nagusia** 11:30ean izanen da eta ondotik, 12:30ean abiatuko dira plazara. Luntx herrikoia, berriz, 12:45ean egingen da. Eta asteleheneko **kantaldian**, Amaren alabak-en ordezkotako, Bedaxagar, Arotze eta Etxekopar kantari zuberotarrak ariko dira.

Aipatu, Baztan Ikastolarako bidean, Iturria eraikuntzak enpresak utzitako belardian akan-palekua ere izanen dela. Aparkalekua eta komunak edukiko ditu.



ARGAZKIA: JOSUNE ITURZAETA

## BKTko neskek Zarautzeko hondartzan eskubaloian

Aurten laugarren aldiz Zarautzen egin den Txaparrotan hondartza eskubaloia txapelketan izan dira Baztango Kirol Taldeko neskek. Uztailaren 2tik 4rako asteburu-an jokatu zen txapelketa, eta infantil mailako bi talde aritu ziren, baita helduen talde bat ere. Infantilen talde batek, gainera, finalerdietarako txartela lortu zuen, nahiz eta hortik aitzinera egiterik ez lortu. Baina lehiatzarago, besta giroan eskubaloiaz gozatzea da txapelketaren helburua, eta BKTko neskek ere ederki pasatu zuten. Zarautzeko kanpenean igaro zituzten egunak, eta igandean, guraso guztiekin bazkaldu zuten. 30 bat lagun bildu ziren. Egun berean egin zuten zere baten zozketa ere eta Elizondon bizi den Vicente Oteiza izan zen sariduna.



ARGAZKIA: ONDIKOL

## Jabier Zigaren omenez egin den pintura tailerra arrakastatsua

Argazkian ageri diren 5-8 urte bitarteko neska-mutikoez ederki pasatu dute Elizondoko Jorge Oteiza Museo Etnografikoak eta Jabier Ziga Fundazioak antolatutako pintura tailerrean. Sonia Ilzarbe eta Eneko Perezekin hainbat egunez bildu dira eta bereziki paisaia eta erretratua generoak landu omen dituzte.


## Elizondoko batzarrea

Besten aitzinetik azken batzarrea egin zuen Elizondoko herriak uztailaren 9an. Eta orduan erabaki zuen Aroztegia... eta gero zer? plataformak eta Amairuko herriak joan den larunbaterako deitua zuten manifestazioari atxikimendua adieraztea. Horrekin batera, inauterietan parodia bat egiteagatik inpu-

tatuak dauden gazteei babes eskaini zien. Herrian panel informatiboa paratzea ere onartu zen eta Lurrealdearen Antolakuntza Plana aztertze-ko komisio bat sortzea ere bai. Udal Plana aldatzeko asmoa du Udalak, etxebizitzak lur-zoru urbanizaezinetan eraiki ahal izateko. Hala, produktibitate ertaineko eta lur urbanizaezinez osatutako auzoez mintzatu ziren.

## Egur loteen eskaerak

Egur loteak eskatze-ko epea abuztuaren 31n akituko da. Baztanen erroldatuak dauden bizilagunek baino ez dute izanen eskatzeko aukera, eta 12 euro ordaindu beharko dituzte horretarako. Udaletxeko bulegoan egin beharko da eskaera, eta familia-ko gehienez lote bakarra eskatzen ahalko da.



# BAZTAN

PILOTA → BAZTAN-UHARTE AURREZ AURRE

## Baztanek irabazi du Nafarroako Herriarteko Pilota Txapelketa

Ttikietan lortutako aldeari esker, erraz gailendu da

### TTIPI-TTAPA

Nafarroako Herriarteko Pilota Txapelketaren finala jokatu zuten uztailaren 4an Iruñeko Labrit pilotalekuan Baztanek eta Uhartek. Faborito garbirik gabeko finala zen, lehen fasean bina partida irabazi zituztelako. Finalean ere bina partida irabazi zuten, baina nagusien azkeneko partida jokatu aitzinetik, jakina zen aurtengoan txapela Baztanera etorriko zela.

Izan ere, ttikienen bi kategoriatan, irabazi ez ezik, tantu alde handia lortu zuten Baztango pilotariak.

Alebinetan, Enaitz Antso eta Iker Espelosinek 18-3 irabazi zieten Uharteko Etxegia eta Etxeberriari.

Infantiletan ere, Arkaitz Untxalok eta David Albiasuk 18-6 irabazi zieten Astiz eta Goñiri. Honela, bi kategoria ttikienetan 27 tantuko aldea hartu zuten baztandarrek.

Jubenil eta nagusien arteko partidetan 17 tantu egitea aski zuen Baztanek txapela eskuratzeko. Eta ez zuten azken partidara esperatu beharrik izan. Jubeniletan galdu egin zuten Baztango Joseba Arizmendik eta Antton Jauregik, baina sekula galdu duten partidarik gozoena izan zen. 19-22 galdu baitzuten Uharteko Loban eta Jauregirekin.

Beraz, nagusien partida tramite hutsa izan zen. Uharteko Yoldi eta Landiribarrek 22-9 irabazi zieten Baztango Unai Arraztoa eta Xabier Arraztoari.

Baztanek hirugarren txapela irabazi du, bere hirugarren finalean. 2000 eta 2001 urteetan irabazi zituen lehen bi txapelak eta bederatzirente beranduago hirugarrena. Izan ere, zazpi urteren ondotik, iaz hasi ziren berriz ere baztandarrek txapelketa honetan eta kasik finalerdietara ailegatu ziren.

Aurten, txapela. Juanjo Atxa pilota arduraduna kontent zegoen txapelarekin eta «ametsik onenetan ere» ez omen zuen honela irabaztea espero.



UTZITAKO ARGAZKIA

Nafarroako Herriarteko txapela irabazi ondotik, kontent Txarutako pilotariak.



ARGAZKIA: MAIXABEL GAMIO

### Giro ederrean Erratzuko bestak

Herriz herriko bestak aitzinera segitzen dute. Eta Arizkungok sanjuanak eta Erratzuko San Pedro bestak pasatu ondotik, Zigakoen txanda izanen da las-ter. Argazkia, berriz, Erratzuko bestetakoa da. Eguraldi ederrekin, giro ederrean ospatu zituzten haur, gazte eta helduek.



ARGAZKIA: ONDIKOL

### Belateko Santiago ermita berreskuratzeko bidean

Urdazubi-Baztango Donejakue Bideko Lagunen Elkarteak Belateko Santiago ermita zaharberrituko du, Iruñera bidean Donejakueren azken eraikina dena, hain zuzen. Obraren aurrekontua 58.023 eurokoa da eta helburua artzain eta oinezkoentzat babestokia izatea da.



TURISMOA → UDALAK ETA BERTIZKO PARTZUERGO TURISTIKOAK ANTOLATUTA

## Aurten hirugarren aldiz, Burdinaren Eguna egingen da abuztuaren 7an

Antzerkia, artisau azoka, hitzaldia, zikiro jatea... izanen dira

### TTIPI-TTAPA

Garai batean herrian budina lantzen zela oroituz, Burdinaren Eguna egingen da aurten ere abuztuan. Udalak eta Bertizko Turismo Partzuergoak antolatuta egingen da, abuztuaren 7an. Aurtengoa hirugarren edizioa izanen da eta goizean hasita, haur zein helduentzako ekitaldiak izanen dira.

10:00etatik aitzinera artisau azoka egingen da eta 11:00 aldera haurrendako antzerkia. Eta ordu bete beranduago, 12:00etan, burdina monasteriora ailegatuko da, zubitik plazarainoko bidea egin ondotik. Goiz osoan musika doinuak ere adituko dira.

Aurten Done Jakueren urtea dela-eta, 13:00etan hasiko den hitzaldia horri buruzkoa

izanen da. Ramon Corpas Nafarroako Gobernu Kultura eta Turismo kontseilariak eskainiko du. 14:00etan, azkenik, zikiro jatea egingen da. Eta honat joateko txartelak herriko ostatueta eskura daitezke.

### Seinalizazio berriak

Dantxarinearako benetan seinalizazio berriak paratu ditu Udalak. Kolore horiko seinalak dira eta bisitariei informazioa argia emateko paratu dira.

### Bi gasolindegiri berri

Uztaileko bigarren erdialdean bi gasolindegiri irekitzekoak dira Dantxarinear. Lerro hauek idazterakoan oraindik zabaldu gabeak ziren, baina, aipatu, Arretxea eta Repsolenak izanen direla.

### Pilotaren Unibertsoa

Aitzineko urteetan bezala, aurten ere Pilotaren Unibertsoa jaial-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Burdina idiek garraiatuko duten gurdian ailegatuko da monasteriora, eta han mojek hartuko dute burdina.

dia egingen da uda honetan, Bertizko Partzuergoak eta Udalak elkarlanean prestatua. Laugarren edizioa izanen da aurtengoa, eta pilotari buruzko hainbat ekimen ikusteko aukera izanen da hiru egunez: abuztuaren 21ean

eta irailaren 4an eta 12an.

Paxaka, pala eta zesta-puntaren inguruan izanen dira jardunaldiak. Abuztuaren 21ean eta irailaren 4an, 19:30ean hasiko dira ekitaldiak, eta irailaren 12an, 11:30ean izanen da par-

tida. Pilotaz gain, musika doinuak eta dastaketak ere izanen dira: abuztuaren 21ean, erraterako, xingarra, txistorra eta gasnak izanen dira jateko; irailaren 4an patata tortilla lehiaketa egingen da eta azkenean paellada.

**MONTXO** OSTATUA



Dantxarinearatik 2 km-tara

**TABAKO-DENDA**  
**ANZAN-BORDA • URDAZUBI**

Egunero irekia 10:30etik 02:30era

**ACCIÓN 21 TÉCNICOS CONSULTORES S.L.**  
Kalitate eta Ingurugiroan Aholkularitza



Eraikuntza sektoreko eta zerbitzu enpresetan adituak

**acción21**  
técnicos consultores

Telefonoa: 620079105  
E-posta: [info@accion21.com](mailto:info@accion21.com)  
URDAZUBI

**Dirulaguntzen deialdia zabalik!**  
KALITATEA KUDEATZEKO SISTEMA: ISO 9001  
INGURUGIROA KUDEATZEKO SISTEMA: ISO 14001

# ZUGARRAMURDI

UDALA → URDAZUBI ETA ZUGARRAMURDIKO UDALAK

## Ekainaren 30az geroztik, idazkari berria ari da bi Herriko Etxeetan lanean

Iruñeko Maite Telletxea da, 22 urteko neska gaztea

### Margari eta Koro

Zugarramurdiko eta Urdazubiko Udaletako idazkaria den Jabier Irigoien sendatzen den bitartean, bere ordezkotzat izan den 22 urteko neska gaztea: Maite Telletxea.

Zortzi lagun aurkeztu ziren bi Herriko Etxeek idazkaria kontratatzeko egindako deialdian, eta guztien artean iruñea-

rra aukeratu dute. Ekainaren 30ean hasi zen lanean.

### EGUN ALDAKETA

Bertze aldaketa ttiki bat ere izanen da: idazkaritzako egun bat aldatu egingen baita. Hala, idazkaria asteartetan Zugarramurdin egonen da, eta astelehenetan Urdazubin. Gaietako egunek berdin segituko dute.

### Akelarreare Eriberrira

Akelarreko Antzerki Taldeak bertze irteera bat dauka hilabete hu-



ARGAZKIA: KORO ETA MARGARI

### Gaztetxoak kontent udalekuetan

Guraso Elkarteak antolatutako giro pulitean gan dira udalekuak. Ez da eskolara gatea bezala, baina egia erran, hainbat gauza ikasi dituzte, joko eta modu dibertigarrian: masajeak hartu eta ematen aritu dira; atorrak tintatzen eta txotxongiloak egiten ikasi dute; dantza eta kantu berriak asmatu dituzte; herri-kiroletan aritu dira; bero haundia egin zuen egun batean Urdazubiko errekan frexkatzen eman zuten goiza; zirko eta malabaretan aritu dira, sukaldatzen ere bai... Horrelaxe pasatu dituzte ekainaren 29tik uztailaren 16ra bitarteko goizak.

nen hondarrerako: Erriberriko Antzerki Klasiakoaren Jaialdian parte hartuko du. Festibal hau uztailaren bigarren hamabortzaldian egiten da, eta Zugarramurdiko taldea uztailaren 25ean ariko da, hau da, igande honetan.

Usaiaiko antzezlan emateko, 14-15 lagun

aritzen dira, baina aldi huntan, bi antzezlan batera egingen dituzte—Sorginaren Eguneako biak—, eta denetara 24 lagun ganen dira, aktoreak, txalapartariak, eta teknikariak barne.

### Ikuskizunak leizean

Uda huntan leizeak bertze gisara ezagutze-

ko manera izanen da, bi ikuskizun eder antolatutaitira: larunbat honetan, uztailak 24, 18:00etan, Messiaen musikalaukoteak kontzertua emanen du. Eta abuztuaren 21ean, berriz, 21:00etatik aitzinera, pantaila erraldoi batean, Akelarre filmea eskainiko da.



Grupo Tanatorio Taldea  
**IRACHE**  
Maldaerreka S.L.

24 ORDUKO ZERBITZUA  
BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA  
IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,  
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Bera 948 63 74 04  
SAN JOSE BEILATOKIA

Doneztebe 948 63 74 04  
SAN PEDRO BEILATOKIA

Elizondo 948 58 19 59  
FUNERARIA BAZTAN  
TANATORIO BAZTANDARRA

Leitza 948 63 74 04  
LEITZAKO BEILATOKIA

Lesaka 948 63 74 04  
LESAKAKO TANATORIOA



KULTURA → AGORRILAREN 25EAN IZANEN DA

## Euskadiko Orkestra Sinfonikoak kontzertua eskainiko du Saran

30 musikari ariko dira guztira San Martin elizan

### Xan HARRIAGUE

Huts egin behar ez den kontzertu paregabea izanen da heldu den agorrilaren 25ean San Martin Elizan. Euskadiko Orkestra Sinfonikoak emanaldia eskainiko du 20:00etatik aitzinera. Berrez, orkestrak 110 musikari ditu, baina gurera 30 etorriko dira, Bibolina izanen da nagusi joko dituzten doinueta.

Historia eta ospe handiko orkestra da Euskadiko Orkestra Sinfonikoak. Karlos Garaikoetxea Eusko Jaurlaritzako lehengo lehendakariak sustatu zuen bere sortzea. Frankoren diktaduraren ondotik lehendakari izendatu zuten, bere lehentasun nagusietariko bat izan zen. Kalitate handiko orkestra bat nahi zuten Euskal Herria ezagutarazteko Europa eta Mundu osoan. Nahi eta erreusitu zuen ere, gaur egun maila handiko musika klasikoaren munduan orkestra ezaguna

delako. Mundu osoan ematen ditu kontzertuak eta urtero 150.000 entzule biltzen ditu.

Orkestrak dituen 28 urte hauetan 30 disko atera ditu. Nagusiki euskal konpositoreek egindako musikekin. Baina ez hori bakarrik. Funtsen bere hasierako helburuetariko bat preseski, euskal konpositoreen lana ezagutaraztea zen.

Sartzea 20 eurokoa baizik ez da izanen. Aukera paregabea zinez halako maila handiko taldea entzuteko, bai musika hori entzuteko

DATUA

# 20

EURO

balio du sartzeak.  
Turismo Bulegoan eros daiteke edo (0033) 559 542014ra deituta.

usairik ez dutenentzat baita ezagutzen dutenentzat ere. Sartzeak Turismo Bulegoan erosi behar dira edo erreserbatu hara deituz. (0033) 559542014.

FLASH

### Kontrabandisten lasterketa agorrilaren 22an

Kontrabandisten lasterketa agorrilaren 22an korrituko da. XLVIII. edizioa izanen da aurten goa. Lasterkariak 17:00etan abiatuko dira beti bezala plazatik Zazpi Fagoetako joan etorri egiteko.

### Agorrileko besten egitaraua

Uda alaitzeko egitarauak aitzinera segituko du agorrilean ere. Bi hitzordu nagusiak hila ren 7an eta 21ean izanen dira. Agorrilaren 7an Sarako Urtxintxak eskubaloi taldearen besta izanen da egun osoan, eta 21ean, berri z, Sarako Izarra pilota elkartearena. Gisa berean ortzegun goizeko merkatuek ere hala segituko dute heldu den hilabete osoan.

### GAINEAN DITUGUN EKITALDIAK

Aitzineko alean aipatu bezala, gogoan izan, larunbat honetan, uztailak 24, Pottokaren Eguna izanen dela eta biharamunean Kermeza (10:00etan meza; 10:30ean pilota partida; eguerdian bazkaria eta gero jokoak). Eta uztailako azken larunbatean errugbi taldearen erro merria eginen da (11:00etan frontoian: pilota, animazioak, jantekoa...)



UTZITAKO ARGAZKIA

Euskadiko Orkestra Sinfonikoak

**ANTXITONEA Turismo**

24 ingela hainuzarekin - Apartakalekua  
Aire giroa gela guztietan - Hain musikala eta TI  
Gela berezia sukalde eta hotel zerbitzuekin

Braulio Iriarte 16, Elizondo • 948 581 807 • 948 581 853  
bostal@antxitonea.com • www.antxitonea.com

**ttipi-ttapa**  
info@ttipi.net  
(0034) 948 63 54 58

**HERRIKO ETXERIK EDANTEGIZ**  
**CAFÉ DE LA MAIRIE**

T: 0559542519  
Maizten eta Véronique

**SARA**

**egoi bardot obregozo arkitektoa**  
679649789 elizondo - braulio iriarte 33, 1ºD - 31700  
948250371 inuñea - irabako monastegia 62, 4ºC - 31011

# SENPERE

AZPIEGITURAK → OBRA BERRIAK

## Herriko zonbait gune berritzen ari da Herriko Etxea karrikan, Aintziran eta Ibarrunen

Urguri aldean aparkalekua eginen da eta Herriko Etxearen gibelean Karrika Nagusia haundituko da

**Franck DOLOSOR**

Senperetik itxura berria izan behar luke ondoko urteetan. Karrika Nagusiko saihesbidea 2013an prest izanen baita, hautetsiek aldaketak eta hobetzeak egin nahi dituzte herriaren bihotzean.

Urguri aldean 6 000 metra karratuko eremua erosi du herriak aparkalekua eta lotura bat egiteko eliza ondoko parke berriarekin. Herriko Etxearen gibelean hektara bat eta erdi erosi dute Karrika Nagusia al-

de hortarat haunditze-ko gisan. Saltegiak, etxebizitzak, feria gune bat eta ikusgarri gela bat altxatuko dituzte ondoko urteetan. Proiektu berriak saltzaileei bai zik ez zaizkiote presentatuak izan. Batzuek begi txarrez ikusten dute herri erdiko ferde gune bakarra desagerraztea.

Bertzalde, espaloi berriak eraiki dira Ibarrun eta Lizardiako merkatalgunearen artean. Oinezkoen segurtasuna hobetuko du doi bat. Azkenik, ibilgailuen abiada eztitzeko hiru konkor altxatu dituzte Aintzirako Karrika Nagusian. Ez da dudarik ideia ona dela arruntjende gutik errespetatzen baitu 30 kilometrako muga. Dena den, beritasuna iragartzen duen bide seinalea erdara hutsean da. Bai Euskarari untsa da, baina noizko Bai Euskaraz?



ARGAZKIAK: FRANCK DOLOSOR

### Ospakizunez ospakizun

Uztailaren 14an besta eguna ospatu da aurten ere. Batzuek Frantziako egun nazionala ospatu duten bitartean, bertze batzuek gogoratu dute euskal ikerri-1894ko uztailaren 14an agertu zela lehen aldikotz jende aitzinean Bilbon. Aurtengo besta egunaren bezperan, suaren lehen besta ospatu zen Aintziran inguruan. Jende multzo ederra bildu zuten musika animazioen ondotik, su artifizialek argitu zuten Ortzango erreka. 14an berean, Amozko besten lehen eguna ospatu zen Larraldean. Petanka eta mus zoingehiagoken eta herri bazkariaren ondotik, arratsaldean ahate jokoa jokatu zen hirugarren aldikotz. Senpereko eta inguruetako hamar bat gaztek parte hartu zuten aspalditik heldu zaukun joko maitagarri hortan. Goresmenak Amozko besta komite osoari!

### DATUA

# 1,5

HEKTAREAKO eremua erosi du Udalak Herriko Etxe gibelean, eta Urgurin 6.000 metra karratu.

## Bi liburu Senpererekin lotuak

Bere lehen eleberri historikoa idatzi eta aurkeztu du berriki Jean Sauvire senperrak. *Marguerite et Wellington* izena eman dio eta Napoleonek denborako gerletan 1813. urtean gure herrian iragan zen amodio historia aipatzen da liburuan. Eleberria frantsesez idatzia da baina aipagarria da duela urte batzuk Senperen finkatu zen gizon hunek euskara ederki ikasia duela. Bertzalde, ondoko asteetan bertze

senperrar batekin lotua den liburua agertuko da, aldi huntan euskaraz. Andoni Iturrioz euskaltzale ezaguna bere aita zenaren biziari buruzko lan bat prestatzen ari da kusi baten laguntzarekin, Joxemari Iturriozekin, hain xuxen. *Manuel Iturrioz – Orexa 1902 – Donostia 1991 – Borrokalari baten bizipenak* deituko da laster agertuko den liburu hunkigarria. Udazkenean berriz aipatuko dugu lan balios hau.



### Amparo ETXARRI OIZ

Berako Atalabordan, 2010eko uztailaren 2an

Nahiz Inuñean do Eltzaburun  
berdin Beran ala Donostin  
beti hitz goxoak burun  
beti irria aurpegin  
besteen poza helburu  
bihotzean daukagu min  
betirako zara gure ingurun  
eskerrikasko amatxi  
eskerrikasko ama birjin.

ZURE FAMILIA

## EZKONTZAK

**Josu Iparragirre Altzuri** eta **Aitziber Alberdi de la Fuente**, Arantzakoa eta Erreterriakoa, uztailaren 3an Arantzán.

**Moises Jimenez Labrador** eta **Eider Gartzia Larrazabal**, Donostiakoa eta Barakaldokoa, uztailaren 3an Lesakan.

**Jose Alberto Gonzalez Larrañeta** eta **M<sup>a</sup> Montserrat Rododera Meilan**, Tolosakoa eta Lleidakoa, uztailaren 3an Lesakan.

**Gorka Orbegozo Amorrotu** eta **M<sup>a</sup> Almudena Artzuaga Otaola**, Hondarribikoa eta Laudiokoa, uztailaren 5ean Lesakan.

**Aitor Ontoria Garmendia** eta **Sara Gartzia Altzuguren**, Hondarribikoa eta Etxalarkoa, ekainaren 26an Etxalarren.

**Pablo Andoño Bidaurre** eta **Jasone Zelaieta Danboriena**, Iruñekoa eta Etxalarkoa, uztailaren 10ean Etxalarren.

*Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.*

## SORTZEAK

**Enaitz Bereau Irigoien**, Lesakakoa, ekainaren 25ean.

**Alaitz Lekuona San Juan**, Lesakakoa, ekainaren 26an.

**Martina Bertiz Arrieta**, Lesakakoa, ekainaren 28an.

**Aroia Ordoki Fagoaga**, Lesakakoa, uztailaren 2an.

**Adur Erkizia Arburua**, Lesakakoa, ekainaren 30ean.

**Santiago Jimenez Etxeberri**, Sunbilla, uztailaren 4an.

**Amaiur Julen Mattin Davion**, Sarakoa, uztailaren 8an.

**Andoni Belaunzarán Etxabe**, Aresokoa, uztailaren 2an.

*Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.*

## HERIOTZAK

**Esperanza Legasa Bergara**, Igantziakoa, ekainaren 29an, 66 urte.

**Ramona Perillon Eltzaurdia**, Berakoa, ekainaren 29an, 94 urte.

**Emilia Errandonea Endara**, Berakoa, ekainaren 30ean, 92 urte.

**M<sup>a</sup> Dolores Lazkano Uztaritz**, Berakoa, ekainaren 30ean, 66 urte.

**Jose Prudentzio Arburua Sanzberro**, Etxalarkoa, uztailaren 1ean, 84 urte.

**Amparo Etxarri Oiz**, Berakoa, uztailaren 2an 73 urte.

**Patrocina Dosantos Pirez**, Berakoa, uztailaren 4an, 92 urte.

**Soledad Migeltorena Irungarai**, Arizkungoa, uztailaren 9an, 85 urte.

**Sebastian Bereau Bergara**, Arantzakoa, uztailaren 7an, 63 urte.

**Ramona Irisarri Organbide**, Etxalarkoa, uztailaren 6an, 87 urte.

**Karlos Bidegain Inda**, Almandozkoa, uztailaren 6an, 56 urte.

**Elisa Peña Ramila**, Iruritikoa, uztailaren 9an.

**Luis Belvis Etxeberri**, Iruritikoa, uztailaren 12an.



### Jose txo TAINTA PIKABEA

Hamargarren urteurrena (2010-VII-09)

*Hamargarren urtez  
faltatu izan bazara ere  
zure umore ona  
gogoan izan dugu.*

**KILKERRAK**



### Sebastian BEREAU BERGARA

Arantzán, 2010eko uztailaren 7an, 63 urte zituela

*Argi bat itzali da hemen lurrean  
berri bat piztu da han zeru ederrean.  
Gure oroimenean izanen zara betiko,  
ez agurrik, ez adiorik,  
gero arte baizik.*

**ZURE SENIDE ETA ILOBAK**



### Dionisio SAGASETA SAGASETA

Narbarten, 2010eko ekainaren 12an, 72 urte zituela

*Samindurik dugu bihotza  
motel bizitzaren garra.  
Gaur faltan sumatzen dugu  
zuk emandako indarra.*

**ETXEKOAK**

HERRI KIROLAK → ABUZTUAREN 1EAN

# Beran jokatu den jardunaldiarekin hasiko da Herriz Herri Txapelketa

Bera eta Baztango Basaburuak ariko dira

## TTIPI-TTAPA

Abuztuaren 1ean Beran jokatu den lehen jardunaldiarekin emanen zaio hasiera Herriz Herri herri kirol txapelketa. Lau taldek parte hartuko dute: Bera, Berriozar, Basaburu (Baztan) eta Ultzamak, eta bi konbinadetan ariko dira.

Lehendabiziko proba konbinatuan hiru jardunaldi eta finala jokatu dira eta saioetako hiru talde onenek lortuko dute finalerako txartela. Txokor biltzea, za-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Joan den urtean Berako taldean aritu ziren kirolariak.

kua, lasterka eta arpak sartzen dira lehen proba honetan.

Bigarren proba konbinatuan, berriz, lasto botatzen, txinga-era-

maten eta ingude-altxatzen ariko dira kirolariak. Kasu honetan, liga sistema erabiliko denez, lau jardunaldietako puntuak batu dira. Azken

jardunaldian berdinketa egonez gero, berdinketa proba bakarrean hautuko da eta zozketa bidez aukeratu da berdinketa hausteko

zein proba egingen den.

**Beran**, abuztuaren 1ean, 19:30ean egingen den lehenbiziko jardunaldiaren ondoren, bigarrena **Arantzan** egingen da abuztuaren 14an, 19:30ean; hirugarrena abuztuaren 21ean **Eli-zondon**, 19:30ean, eta finala abuztuaren 28an jokatu da Berriozarren.

## Euskal Herriko Lasto-Altzatze Txapelketa

Udari begira egingen diren herri kirol saioen artean, abuztuaren 15ean Euskal Herriko Lasto Altzatze Txapelketa jokatu da Etxalarren.

PLATER TIROKETA → SKEET OLINPIKOAK

# Itsaso Fagoaga lesakarra laugarren Europako Txapelketan

Bide batez, Espainia mailan marka ezarri du neska gazteak

## TTIPI-TTAPA

Itsaso Fagoaga lesakarra inoiz lortutako emaitzarik onena lortu du Europako txapelketan: 4. postua eskuratu zuen uztailaren 2an eta 3an Kazan-en (Errusia) jokatu du txapelketan.

Txapelketan 75tik 64 plater xehetu zituen Fagoagak. Plater kopuru berdinarekin 4 emakume berdindurik gelditu ziren, baina finalera hiru

sailkatzen zirenez, desentzate egin eta finalerako postua lortu zuen lesakarra.

Finalean 25 platerko bertze serie bat tiratu behar izan zuten. Lehen postuan zegoen ingelesak 20 puskatu zituen; errusiarrak 22; Eslovakiakoak 20; eta daniarrak, frantsesak eta lesakarra 23. Hala, ingelesak lehenengo postua lortu zuen 89 platerekin, Eslovakiakoak 6. postura jautsi zen 85 platerekin eta errusiarrak, daniarra, frantsesa eta lesakarra 87 platerekin berdinduta geratu ziren. Berriz ere desentzate egin

eta 4. postua lortu zuen Fagoagak. Eta 100 plateretik 87 hautsi zituen, Espainiako errekorra hobetu zuen.

Joan den urtean finaleko atarian gelditu ondoren aurten laugarren postua lortzea «satisfakzio handia» izan da Fagoagarentzat, «horrek hobekuntza erran nahi duelako eta batez ere, hurrengo urteei begira nire buruarekin konfidantza gehiago hartzeko lagunduko didalako». Nahiz eta «pena pixka bat» izan podiumera igoz gero geldituta, hagitik kontent dago lortutako emaitzarekin eta «beti ni-



UTZITAKO ARGAZKIA

Joan den asteburuan Espainiako Kopa jokatu zuen Itsasok eta abuztu hasieran Munduko Txapelketan ariko da.

re ondoan laguntzen nahiz animatzen dauden guztiei eskerrak eman nahi dizkiet, beraien laguntza gabe ez nuelako lortu izanen».

Europakoaren ondoren, joan den asteburuan Espainiako Kopa jokatu zuen eta abuztuaren, Alemaniako Munduko Txapelketan izanen da.

HERRI KIROLAK → NAFARROAKO HERRI KIROL FEDERAZIOAK ANTOLATUTA

# Nafarroako hainbat txapelketa erabaki dira Iruñeko Sanferminetan

Lau txapel eskuratu dituzte eskualdeko kirolariek

## TTIPI-TTAPA | IRUÑEA

Azken urteotan bezala, Nafarroako Herri Kirol Federazioak antolatuta, herri kirol saio andana jokatu ziren Iruñeko Sanferminetan. Eta iragarri bezala, horietako aunitzetan Nafarroako txapeldunak erabaki ziren. Eskualdeko ordezkariak zabala izan zen, eta emaitza onak eskuratu zituzten.

**Harri-Altzatze Txapelketan**, Sunbillara etorri zen garaipena berriz ere. Unai Bertizek 6.050 kilo jaso zituen guztira eta sailkapenean, bigarrena gelditu zen Josetxo Urrutia leitzarrek 5.462,5 kilo. Hirugarren postua ere zonaldera etorri zen, Etxalarrera: Xabier Ariztegi Santxinek 4.800 kilo jaso zituen.

**Lasto Altzatze Txapelketan**, igantziarren arteko lehian Xabi Sein nagusitu zen. 22 altxaldi egin zizkion. Bigarrena Iñaki Bereau izan zen (21 altxaldi eta hurrengo altxaldi bi minutu eta lau segundotara) eta hirugarrena Karlos Sein (21 altxaldi bi minutu eta 6 segundotara).

**Maila Nagusiko Arpana Txapelketan**, gizonetzkoetan, parte hartu zuten lau bikoteetatik bakararra izan zen eskualdekoa. Ez zen txapelik etorri, baina Igor Lasaga (Bera) eta Jabier Galarregi (Etxalar) bi-

garren izan ziren (09:50:10eko denbora).

**Ingude Altzatze Txapelketan**, bertzalde, aurten ere Joakin Aiora iturendarra nagusitu zen. 18 kiloko ingudeari 92 altxaldi eman zizkion; Xabi Sein igantziarrak 89; Karlos Sein igantziarrak 87 eta Josetxo Urrutia leitzarrek 86.

**Bikotekako Aizkora Txapelketa** ere Sanferminetan jokatu zen, eta Floren Nazabal eta Jose Juan Barberena nagusitu ziren (23:04); Juan Jose Lopez eta Mikel Mindegia gelditu ziren bigarren (24:16) eta Donato Larretxea eta Antonio Senosiain hirugarren (27:31).

**Gurdi Altzatze Txapelketan**, bertzalde, lehen bi postuak eskualdera etorri ziren: azken urteotan irabazle izan den Joseba Petrirenak eskuratu zuen garaipena (5 itzuli eta 5,24 metro), eta Josetxo Urrutia leitzarrek izan zen bigarren (5 itzuli eta 4,22 metro).

**Txinga Eramate txapelketan**, emakumezkoetan, ez zen txapelik etorri, baina eskualdeko partaidetza nabarmentzekoa izan zen: bigarren postuan Xanta Sousa lesakarra gelditu zen (12 plaza 1/4 2,10 metro), hirugarren Nerea Sorondo beratarra (10 plaza 1/4 5,10 metro) eta laugarren Dorleta Peña beratarra.

**XII. San Fermin Motozerra** Sarian, Oieregiko Esteban Arruti izan zen parte hartu zuen zonaldeko bakararra, eta



ARGAZKIA: HERRI KIROL FEDERAZIOA

Goiko argazkian Lasto Altzatze Txapelketan parte hartu zuten hiru igantziarrak: Iñaki Bereau, Xabi Sein eta Karlos Sein. Behekoan, harri-jasotzaileak: Josetxo Urrutia leitzarrek, Unai Bertiz sunbildarra eta Xabier Ariztegi Santxin etxalartarra. Eskuineko argazkian, berriz, Joseba Petrirena gurdiarekin.

hau bigarren gelditu zen, 8 punturekin.

Txapelketatik harago, aunitz izan dira Iru-

ñeko Sanferminetan erakustaldiak eskaini dituzten kirolariak: Arkaitz Olano, Ruben Saralegi,

Iñaki eta Inaxio Perurena, Mikel Saralegi, Maika Ariztegi, Izaskun Ariztegi...

## Euskal Herriko II. Mailako Aizkora Txapelketako kanporaketa Elizondon

Igande honetan, Euskal Herriko II. Mailako Aizkora Txapelketako kanporaketa jokatu da Elizondoko Laxo Plazan, 19:30ean hasita. 12 aizkolari lehiatu dira: Manuel Kañamares (Nafarroa), Xabier Mindegia (Beintza-Labaien), Ander Erasun (Aurtitz), Arkaitz Olano (Leitza), Oihan Larretxea (Bera), Fausto Mugertza (Gi-

puzkoa), Aratz Mugertza (Gipuzkoa), Ugaitz Mugertza (Gipuzkoa), Jose M<sup>a</sup> Telletxea (Gipuzkoa), Jose Ugarteburu (Gipuzkoa), Jabier Aranberri (Gipuzkoa) eta Jesus M<sup>a</sup> Lasa (Gipuzkoa).

Aizkolari bakoitzak hiru kanaerdiko, 60 ontzako bat eta 72 ontzako bertze bat moztu beharko ditu. Eta kanporaketan sailkatzen diren le-

hen sei aizkolariak Donetztebeko Ferietan jokatu den finalean ariko dira.

Bertzalde, abuztuaren 29an Arazurin jokatu da **Nafarroako III. Mailako Aizkora Txapelketa**, eta han ariko dira eskualdeko hiru kirolari: **Jose Antonio Loliarte (Zubieta)**, **Asier Pellejero (Areso)** eta **Raul Kastro (Urroz)**.

## uztailak 22 - abuztuak 4

Informazioa bidaltzeko: [info@ttipi.net](mailto:info@ttipi.net) edo 948 63 54 58

Ospakizunak	Kontzertuak	Erakusketak
 <p><b>SARA</b>   2009.07.24 <b>Pottokaren Eguna ospatuko da larunbatean</b> Euskal Herriko zaldi arrazaren tokia aldarrikatzeko Pottokaren Eguna ospatzen hasi ziren 1996an Saran. Larunbatean ere hainbat ekitaldi izanen dira.</p>	 <p><b>ARANTZA</b>   2010.07.24 <b>Selektah Stepi taldea Aterpe ostatuan</b> Arantzako Aterpek udarako antolatatu duen kontzertu zikloaren barnean, Selektah Stepi taldea ariko da larunbatean. Hilaren 22an, berriz, Zigor DZ ariko da.</p>	 <p><b>IRURITA</b>   2010.08.16 arte <b>Rafael Ubaniren margolanak Irurirako Olarin</b> Iruñean sortua izan arren, Elgorriagan lehenik eta gaur egun Iruritan bizi den margolarien lanak ikusteko aukera izanen da, ostatu ordutegian.</p>

**Erakusketak**

ELIZONDO

**Xabier Morrás-en erakusketa**

**Ekainaren 26tik abuztuaren 28ra** Xabier Morrásen pintura erakusketa ikusgai Arizkunenea Kultur Etxean.

**'Artearen Ibilbidea' erakusketa**

**Uztailaren 22tik abuztuaren 29ra** *Artearen Ibilbidea* margo erakusketa zabalduko du Clara Santamariak Santiago karrikako Kattalinenean.

**'Piedras en el paisaje' erakusketa**

**Uztailaren 22tik abuztuaren 29ra** Tomas Sobrinoren *Piedras en el paisaje* margo erakusketa zabalik Arizkunenean.

**Juan Carlos Olaetxeak erakusketa**

**Uztailaren 16tik abuztuaren 15era** Juan Carlos Olaetxea margolariaren lanak ikusgai Jaime Urrutia 20an. 11:00-14:00, 18:00-21:00.

ARIZKUN

**Teresa Lafraguaren margo erakusketa**

**Uztailaren 8tik 31ra** Teresa Lafraguaren margo erakusketa ikusgai Santxotena Parke-Museoan.

HENDAIA

**Trini Mikelarenaren margo erakusketa**

**Uztailaren 17tik 31ra** Trini Mikelarena margo erakusketa Hendaiaiko Galeria 64-en. Asotelehenetik larunbate-

ra 11:00-12:30/17:00-19:00.

SENPERE

**Rosa Valverderen margo erakusketa**

**Uztailaren 9tik 31ra** Amotz auzoko Larraldean, Rosa Valverderen margo erakusketa.

IRURITA

**Rafael Ubaniren margo erakusketa**

**Uztailaren 6tik abuztuaren 16ra** Rafael Ubani Villareal

margolari nafarraren erakusketa Irurirako Olarin ostatu-jatetxean.

URDAZUBI

**Euskal pinturaren 50 urte erakusketa**

**2011ko urtarrilaren 2ra arte** Urdazubiko monastegiko klastroan gaur egungo euskal margolari eta eskultore garrantzitsuenen 300 artelan ikusgai. Asoteazkenetik ortziratera 14:00-18:30. Larunbat, igande, besta eta opor egunetan 11:00-19:00.

## PROPOSAMENA

BERA

**San Esteban egunean Bordondantza**

Abuztuaren 3an izanen dute Beran bestetako egun handia. Abesbatzak kantatuko duen mezaren ondotik, Gure Txokoa dantza taldeko kideek Berako Makildantzak eta Bordondantza dantzatuko dute txistularien laguntzaz. Arratsaldean ere lanera bueltatuko dira, Aurrekua dantzatzeko. Gero, musika bandak kontzertua eskainiko du.

**Ospakizunak**

SARA

**Pottokaren Eguna**

**Uztailaren 24an** Pottokaren Eguna plazan.

**Ikastaroak**

ELIZONDO

**Baztango paisaiak helduendako**

**Abuztuaren 2tik 30era** Baztango paisaiak helduendako ikastaroa Jose Mari Apezetxea eta Tomas Sobrino margolarien eskutik, astelehen, asteazken eta ortziraletan. Izen-emateko epea zabalik Arizkunenean.

**Kontzertuak**

ELIZONDO

**Jazz, soul eta blues musika karrikan**

**Uztailaren 31n** Broken Brothers Brass Band taldearekin jazz, soul eta blues musika karrikaz karrika, 19:30ean.

ARANTZA

**Kontzertu zikloa Aterpen**

**Uztailaren 22an** Zigor DZ taldea.  
**Uztailaren 24ean** Selektah Stepi taldea.  
**Uztailaren 31n** Makalala taldea.

ZUGARRAMURDI

**Messiaen musika-laukotea**

**Uztailaren 24an** Messiaen musika-laukotearen emanaldia, 18:00etan.

**Bestak**

GAZTELU

**Santo Domingo bestak**  
**Abuztuaren 3tik 7ra.**

ZIGA

**Santo Lorentzo bestak**  
**Abuztuaren 7tik 11ra.**

**BEINTZA-LABAIEN**

**Herriko bestak**

**Uztailaren 30etik  
abuztuaren 4ra.**

**BERA**

**San Esteban bestak**

**Abuztuaren 2tik 7ra.**

**LEITZA**

**San Tiburtzio bestak**

**Abuztuaren 10etik  
15era.**

**SUNBILLA**

**San Tiburtzio bestak**

**Abuztuaren 10etik  
14ra.**

**ARANO**

**Santiago festak**

**Uztailaren 23tik 26ra.**

**ELGORRIAGA**

**Santiago bestak**

**Uztailaren 23tik 26ra.**

**ELIZONDO**

**Santiago bestak**

**Uztailaren 23tik 26ra.**

**Lehiaketak**

**LESAKA**

**Beti Gazte elkartearen  
Argazki lehiaketa**

**Urriaren 30a arte** aurkez daitezke **Beti Gazte** antolatutako argazki lehiaketarako lanak.

**Zinema**

**ELIZONDO**

**Udako zinema**

**Abuztuaren 2an** *Que se mueran los feos.*  
**Abuztuaren 9an** *Rompedientes.*  
Emanaldiak 22:00etan  
Merkatu Plazan.

**ZUGARRAMURDI**

**Akelarre filmea**

**Abuztuaren 21ean**  
*Akelarre*, 21:00etan.

Gertaera guztiak ikusteko, begiratu:  
**www.ttipi.net**  
(agenda)

**ENTRETENIMENDURAKO GAIAK**

**Liburua**



Kontrarioa

**LANDER GARRO**

Susa, 2010

**R**aul Oliveirak xakean eta edaten pasatzen ditu Rarratsak Oskar adiskidearekin, amodio ezinezkoetatik ihesian, idazle izateko ametsekin zorabiatuta. Ourretako Pontika auzo bazterrekoan bizi da amarekin, baina aurki lanen bat topatu ezean ostikoz botako du etxetik. Amaitzean da urtea, aro berri bati ekin behar diolako estutasuna bultzaka ari zaio, eta nora gabe horretan patuari izkin egiteak zaila dirudienean, Gabriela ezagutuko du, Jose Zarate margolariaren emaztea: argi izpi bazuen bristada. Behin eta berriro malurretan izan denak bozkarioa ote du esperoan? Bizimodu mapartatu honi lepoa ebaki behar dio.

Irribarrea kilikatzen duen istorio petrala da *Kontrarioa*, makurkeriara bezainbat lerratzen dena umore eta parodiara, beti kontrastez josirik, samurtasunez bezala mingoski. Galtzaile baten ibili piperrak kontatzen ditu Lander Garroren lehendabiziko nobelak.

**Musika**



Borrokatu eta irabazi

**HESIAN**

Promomusika, 2010

**B**eraien lan berriaren izenburua izateaz gain, taldearen ibilbidean azkenengo hilabetetan gertatutakoaren isla ere izan daitekeela erratera ausartuko ginatke. 2008. urtean *Herriaren Oihua* (GOR 2008) diskoarekin Euskal Herriko bazter guztiak astindu eta 130 kontzertu eskaini ondok, zuzenekoak uztearekin batera, taldeak bere egiturari aldaketari eutsi beharrean aurkitzen du bere burua. Egoera honen aitzinean, horixe da taldeak erabaki eta lortu duena: *Borrokatu eta irabazi*. Hementxe duzue emaitza. Hameka abestik osatutako disko adoretzua. Aitzineko lanetan bezala, amorrua eta itxaropena islatzen dute abestiek, oinarri gogor eta azkarrek doinu kantagarriak sostengatzen dituztelarik. Hasieratik markatutako norabidea segitzen du taldeak, aldaketa nabarmenekin. Zalantzarik gabe, disko hau aurrerapauso garrantzitsua da taldearen soinua eta izaeraren sendotze bidean.

**Internet**



Ttipi-ttaparen  
webgunea berritua

**WWW.TTIPI.NET**

**T**TIPI-TTAPAK webgunea berritu egin du. Egunkari digitalean, eguneroko albiste garrantzitsuenak ageri dira eta berri horien zabalpena ere irakur daiteke gainean klikatuz gero. Baina ez da webgunean eskaintzen duen aukera bakarra. Eskuineko zutabean, Urtebetetzeak, Merkatu Ttikia eta egunez eguneko Agenda modu errazean ikusten ahal dira, eta norberak argazkiak edo proposamenak bidaltzeko modua ere aski erraza da. TTIPI-TTAPA aldizkari aleak ere kontsulta daitezke, PDF formatuan. Halere, berrikuntzarik nabarmenena iritzi bloga da. Honela, aldizkari Nire Txanda, Ezpala, Kolaborazioak, Irakurleak Mintzo edo 11 Galdera labor sailetan agertutako iritziak kontsultatzen ahal dira, atalka edo egilearen arabera. ttipi-txartela, Eguraldia edo Errepideen inguruko informazioa ere eskaintzen du.

**Nire aukera**



**Xalbador MADARIAGA**  
Lesakako akordeoilaria

**«Benito Lertxundiren kontzertu bat gustora adituko nuke berriz ere»**

**D**uela 53 urte sortu zen Arantzan eta sei urte Artikutzan bizitu ondok, Lesakako Frain auzoko Iturrikobordan hazi zen Xalbador Madariaga akordeoilari ezaguna. Musika irakaslea da Lesakan eta lanbideak libre uzten dioenean, asteburuak lasai pasatzea gustatzen zaio: «Nonbaitera aterra, mendian bueltaren bat eman, beti etxe inguruan... Iloba pilotan aritzen da eta partidaren bat ikustea ere gustatzen zait». Musikaria izaki kontzerturen bat aditza ere gustatzen zaio. «Pantxoa eta Peioren kontzertu bat aditu nuen lehengo denboraldi horretan, beraiekin akordeoia jotzen duena nire ikasle izan zelako, gustura entzun nuen. Benito Lertxundi ere gustura adituko nuke berriz ere, gehien gustatzen zaidan kantaria da eta aspalditxo ez dut ikusi». Ehizarako afizioa ere badu, «uso eta oilagorretan». Udan ere aterra izan da «Kantabria, Pirinioak, Kanarietara, Mallorca, Galizia, Portugalera... toki batzuko ezagutu ditugu».

**ETXEBIZITZAK**  
salgai

**DONEZTEBE.** Eguzkierder kalean -tailer inguru-, 2. eskuko kalefakziodun pisua salgai. 3 logela, bainugela, egongela eta trastelekua. 27.000.000 pezeta (163.000 euro). Garajea aukeran. ☎650 264156.

**ANZABAL**  
INMOBILIARIA**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

**IPARRALDE eta BIDASOA alderdian**

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurra behar ditugu.

**ZUGARRAMURDI**

- Baserria salgai 80.000 metro<sup>2</sup>ko lur eremuarekin.  
- Etxe adosatuak bere lurra-ekin salgai.

Tel. 948 580 804  
Faxa. 948 581459  
anzabal@anzabal.com

**BERA.** 80 m<sup>2</sup>ko pisua salgai. 3 gela, bainugela, sukaldia, egongela eta trastelekua. Berritua. Gas naturala eta berogailua. ☎657 715243.

**ERATSUN.** 3 borda salgai, lur eremuarekin. ☎943 217817.

**IRUN.** Colon aparkalekutik hurbil etxebizitza salgai. Bikote gazteentzat egokia. 180.000 euro (garai bateko 30 milioi pezeta). ☎637 559152.

**DONEZTEBE.** Rosa Seminarion, 3. solairuan dagoen pisua salgai. Eskailera batzuen bidez, trastelekura komunikatua dago. 3 logela eta 2 komun. Dena mobleztatua. ☎679 109423.

**ERRATZU.** Etxebizitza salgai edo errentan emateko. ☎944 572184/ 652 779210.

**ELIZONDO.** Apartamentu salgia 'Etxe berdean'

**MERKATU TTIKIA**

948 63 54 58

info@titi.net edo www.titi.net

SAIL HONETAN IRAGARKIA JARTZEKO 8€ ORDAINDU BEHAR DA ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO 10€

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta TELEBISTA eta INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

(Txispasen parean). 2 logela, 2 bainugela, sukaldia eta egongela. Mobleztatua. Trastelekua eta garaje plaza. Aukera paragebea. ☎948 580656 (arratsalde).

**LESAKA.** Etxebizitza salgai. Prezio onean. ☎609 477277.

**ETXEBIZITZAK**  
errentan eman

**IRURITA.** Etxea errentan emateko, 3 logela eta garajearekin. ☎659 764375.

**ETXEBIZITZAK**  
errentan hartu

**Baserri bat** errentan hartu nahi da, lur eremu tiki batekin, baratze gisa erabiltzeko eta animaliak edukitzeko. ☎647 023232.

**MALERREKA EDO INGURUAN.** Familia batek baserria edo etxea

errentan hartuko luke. ☎617 543034.

**BORTZIRIAK-HENDAIA.** Neska batek pisu tiki bat edo estudio bat errentan hartuko luke. ☎616 203516.

**ETXEBIZITZAK**  
konpartitu

Hiru ikasle leitzar Iruñean bizitzeko **pisukide bila** gabiltza. Pisua Irunlarrera auzoan dago eta oso lasaia da. Etxea handia, eroso eta argitsua da. Bi komun eta gela propioa bakoitzak. Hilean 200 euro. ☎680 879654.

**IRUÑEA.** Mendebaldea auzoan pisua osatzeko lagun bat behar da. Unibertsitate pribatutik hurbil dago. ☎650 288515.

**LURRAK/ORUBEAK**  
denetarik

**ALMANDOZ ALDEAN.**

60.000 m<sup>2</sup>ko belagia dohainik eskaintzen da ardiak bazkatzeko eta ondoan baserri bat dago ardiak gordetzeko. Horrik hurbil, 6.000 m<sup>2</sup>ko bertze lur eremu bat ere dohainik eskaintzen da ardiak bazkatzeko, borda batekin. ☎686 983377.

**LURRAK/ORUBEAK**  
erosi

**ARANTZA.** Guttienez 5.000 m<sup>2</sup> dituen lurra erosi nahi da. ☎653 122074.

**LANA**  
eskaintzak

Esperientziadun pertsonak **pladur, margo** edo **ta igeltsero** bezala murgildutako lanak egiten ditu. Prezio ekonomikoan. Oso txukuna bere lanean. ☎608 998990 (Mikel).

**Geriatrico auxiliarrak**

jende heldua edo ezindua zainduko luke zainketa pertsonalean, etxeko lanetan, laguntza bizitza sozialean eta ospitalean eta etxean gauak ere bai. Esperientzia profesionala kontrastatua. ☎609 477277.

**Neska euskaldunak** extra bezala bestetan lan egiten luke. Sukaldean eta zerbitzatzen esperientzia duna. ☎638 191468.

**LANA**  
eskariak

**Promotorea** behar da, autoarekin eta frantsesa dakiena (erdi maila). Mugan lan egiteko, abuztura arte. Kontratua, soldata eta kilometroja. Bidalitza curriculum: [empleo@congrebas.com](mailto:empleo@congrebas.com).

Aisialdirako **monitorea** eta jatetxe bateko **fregaderan** lan egiteko bi lagun behar dira. ☎654 385363.

**MOTORRAK**  
salgai

**Fiat grande punto** 1.9 diesela salgai. 130 zaldi, 17ko llantak. MP3a, esku librekoa, klima bizona, 63.000 km. Errebisio guztiak Fiat-en eginak. Ongi zaindua. ☎628 287016.

**BASERRIA**

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA  
(ekainaren 25etik uztailaren 2ra bitarteko prezioak)



**Zerrikumea**  
(19 kilo): 40,00 € (-1,00)

**Zerri gizena**  
1,271 € kilo. (=)

**Zerramak:**  
0,440€ Kg/bizirik. (=)



**Aretze gizenak:**  
**Idixkoak:** €/kg. Kanal

**Extra** 3,80 (=)

**1.koa** 3,49 (=)

**2.koa** 2,96 (=)

**Urruxak:** €/kg. Kanal

**Extra** 3,87 (=)

**1.koa** 3,60 (=)

**2.koa** 3,13 (=)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

**Aretze tikiak**  
(15 egun ingurukoak):

**Aretze mestizoak:**  
urruxak 130,00 (=)  
idixkoak 210,00 (=)

**Aretze nabarrak:**  
urruxak 108,00 (=)  
idixkoak 130,00 (=)

**Zaldikoak:** €/k  
Sortuberrak: 2,70/2,80  
Zaldi-behorrak: 1,55/1,69  
**Bildotsak:** €/k  
6-8 kilokoak: 6,30/7,00  
8-10 kilokoak: 5,20/5,50



**Lada Niva** salgai. ☎678 957094.

**Rieju RR sport 50** motorra prezio onean salgai. ☎699 534512.

**Opel vectra TD** salgai. Egoera eta prezio onean. ☎637 466113.

**Seat Marbella** salgai. 74.000 kilometro. 500 euro. ☎680 983577.

**Opel Meriva** salgai. Bortz urtekoa eta gasolina. Egoera ezin hobean. Garajejan egondakoa da eta errebisio guztiak tailer ofizialean eginak dituena. ☎676 919418.



**Renault Master** etxebizitza furgoneta salgai

(2007). Bidaiatzeko 6 plaza (homologatua). 2 ohe (4 lagunek lo egiteko). Ur edangarri eta zikinerako andelak. Arroparako armairu bikoitza. Jateko mahai plegatua. 12 V argiztapena sutako sukaldia, fregadera eta armairuak. 90 litroko hozkailua. Kopilotorean eserleku birakaria. 12 V eta 145 A bateria auxiliarra. Kotxearen alternadorearekin eta kanpoko tomarekin. Gasaren instalazioa: sukaldarako eta ur berorako. Zentralita elektronikoa. Ur berogailua. Berogailua. Kortina isotermikoak. 2 klaraboia. Komuna: WC, dutxa, kortinak, ispilua eta armairuak. 43.000 km. 35.000 euro. ☎655725252/edume.arieta@euskalnet.net.



**ANIMALIAK**  
oparitu

**BERA.** Zakurkumeak oparitzeko. Atta alemaniar artzain-zakur nahasketa eta ama Border-collie arrazakoa. ☎696 721575.

Hilabete bateko **hiru katakume** oparitzeko. ☎618 188300.

**BERA.** Zakurkumea oparitzeko. ☎679 622348.

**ANIMALIAK**  
salerosketak

Erbi eta basurdeetarako **zakurkumea** salgai. Arraza garbikoa, xuria eta paperekin. Atta eta ama ere ikusteko aukera. ☎619 285919.

**Golden Retriever** arrazako zakurkume txuriak salgai. Abuztu bukaeran biltzeko. ☎663 708615.

**DENETARIK**  
salerosketak

Behien **txuleta zintak** eta

**DONEZTEBERRI AVIA GASOLINDEGIA**

**DESKONTUAK CLUB AVIA** (bartzelarekin):  
%2 gasolio eta gasolinan  
%5 dendako produktuetan

**IRABAZI 25** Scooter

Leizako Errepidea  
DONEZTEBE  
T 948 451 679  
www.doneztebe.com

**solomilloak** salgai. Oso haragi ona eta prezio onean. ☎659 751411.

1,90 metroko luzera duten **arkazi piketeak** salgai. ☎948 634120.

Neska gazteak baratzean aritzeko gogoarekin **erreminta bila**. Sobran badi-tuzu eta birziklatzeko in-tentzioarekin bazabiltza, deitu. ☎652 708901 edo 667 218632.

**MENDAUR MOTOR**  
948 450333 • DONEZTEBE

**SUZUKI**  
(gasolina eta diesela)  
**MITSUBISHI**  
(luze eta laburrak)  
**TURISMOAK**

Bulegoko mahai eta **aulkiak** salgai. ☎948 627644.

**Belar idorren boloak** salgai. ☎660 393436.

**ttipi-ttapa FUNDAZIOAK**

**zure laguntza behar du**

eginzazu ttipi-ttaparen alde proiektu zenbakia: 15.996

Eska ezazu ttipi-ttaparen proiektua aukeratu izanaren frogagiria Nafarroako Kutzaren zure bulegoan eta ekar ezazu ttipi-ttapara 2010eko abenduaren 30a baino lehen.

dagoeneko **764** LAGUNEK egin dute gure alde

**Peltsa eder hau izanen duzu opari.**

geure bezeroek aukeratutako proiektuak **can**

# urtebetetzeak

Argazki soila: 4€; bikoitza: 8€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,34€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekoa; 4) [www.ttipi.net](http://www.ttipi.net) bitartez



**PERUK** uztailaren 31n 2 urte beteko ditu. Zorionak moñoi! Ondo pasa urtebetetze egunean eta muxu handi bat familiaren partetik.



**ANEK** abuztuaren 26an 5 urte beteko ditu. Zorionak gure printzesar! Ondo pasa urtebetetze egunean eta muxu handi bat familiaren partetik.



**AITZOL SAN SEBASTIAN** ARRAIZAK urteak beteko du uztailaren 27an. Zorionak eta aunitz urtez familia guztiaren partetik.



**MIKEL ARREGI ETXARTE** doneztebarrak 2 urte bete ditu uztailaren 20an. Zorionak eta muxu bat bereziki Mikelen partetik. Ongi pasa eguna!




**NEREA ARREGI ETXARTE** doneztebarrak 5 urte beteko ditu abuztuaren 19an. Zorionak eta muxu bat bereziki Mikelen partetik. Ongi pasa eguna!



Askozabaleko **AUZA IPARRAGIRRE** ITURZAIETAK urteak beteko ditu uztailaren 31n. Aunitz urtez eta muxu potolo-potoloa etxekoan partetik.



**PAKO DE LUZIAK** urteak beteko ditu uztailaren 25ean. Zorionak eta aunitz urtez! Abisatu noiz eta non duzun hurrengo kontzertua. Kuadrilla.



Elizondoko **OIER JUANIKOTENA CALLEJAK** 3 urte beteko ditu abuztuaren 8an. Zorionak potoko! Osaba-izebak, amatxi, Laura, Julien eta Iker.



Aunitz urtez potxola! Hagitz ongi pasa eta ea tragoxka batera gonbitatzun. Muxu handi bat. Kaxkarrak.



**IKER LOIARTE OTXANDORENA** zubietarrak urteak bete ditu uztailaren 21ean. Zorionak eta muxu bat Esther eta bere familiaren partetik.



**NAROKA** 6 urte beteko ditu uztailaren 25ean. Zorionak eta muxu pila Lesakako familiaren partetik.



**URKO OLAIZOLA MENDEGIA** lesakarrak 2 urte bete ditu uztailaren 18an. Aunitz urtez familia osoaren partetik. Aupa ezpatadantzari!



Uztailaren 22an **IRUNE URROZ GONZALEZ** 5 urte beteko ditu, eta bere ahizpa **MAIALENEK** bere eguna du. Zorionak eta muxuak Mikel, Amaia, guraso, amatxi, osaba-izeba eta familia guztiaren partetik.



Aurtizko **HIRUKOTE** honek uztailaren 25ean, 28an eta abuztuaren 6an urteak beteko dituzte. Zorionak eta muxu handi bana familia osoaren partetik, eta bereziki Josu eta Olaiaren partetik.



Zubietako **IKER LOIARTE OTXANDORENAK** 6 urte bete ditu uztailaren 21ean. Aunitz urtez eta muxu handi bat familiaren partetik, bereziki Naroa, Garazi, Uxue eta Ekaitzen partetik.



Urroz eta Oizko **UXUE MATXIÑENA** eta **AMAIK MIXELARENA**. Aurten bigarren postua lortu duzue. Lasai, hurrengo urtean txapela gurea izanen da! Segi ilusio horrekin. Besarkada handi bat zuen familiaren partetik.



Aunitz urtez **ATATXI** eta **BILOBAK** uztailaren 1, 8 eta 21ean urteak bete dituztelako. Baserrikoen partetik.



**AIERT, ALAZNE** eta **NAROA IRIGOIEN ETXARTEK** uztailaren 1ean eta 21ean 7 eta 4 urte beteko dituzte. Zorionak eta muxu bana familia osoaren partetik, bereziki atxa eta amaren partetik.



Bartzelonako **LUIS ARRETREA ALONSO** uztailaren 17an urtea bete du. Zorionak eta muxu handi bat familiaren partetik.




Arantzako **IRAIDE BURLADA** eta **TANIA INDAKOETXEAK** urteak beteko dituzte abuztuaren 19an eta 6an. Zorionak bie familia guztiaren partetik eta bereziki Eneritzen partetik. Muxu handi bat eta ongi pasa!



Berako **GABRIEL AGIRRE ZELAIETAK** urteak beteko ditu abuztuaren 6an eta **XANTI AGIRRE GONZALEZ** 3 urte beteko ditu uztailaren 30ean. Zorionak eta muxu handi bat aita-seei familiaren partetik.




**UNAI ARANGUREN MUTUBERRIAK** urtea beteko du abuztuaren 1ean. Zorionak gure *mordoxko* osaba-izeba eta batez ere amatxi Maria Jesusen partetik. Muxo handi bat.



**EKAITZ, HAIZEA** eta **NAROA MITXELENA LEKUONAK** uztailaren 10ean 2 urte bete dituzte. Zorionak aita, amatxi, Legasako ataxi eta amatxi eta lehengusuen partetik.



**KATIXA OIARTZABAL**. Zorionak eta muxu handi bat zure zortzigarren urtebetetzean, sorgitxo!! Familiaren partetik.



**UNAX TAPIA REKARTEK** urteak beteko du abuztuaren 6an. Zorionak eta aunitz urtez Berako familiaren partetik.



**EIDER TABERNA MUTUBERRIA** arantzarrak uztailaren 30ean 7 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu handi bat familiaren partetik.



Berako **NAROA OTAMENDI ABRILEK** 5 urte beteko ditu uztailaren 26an. Zorionak printzesa eta muxu handi bat guztion partetik, bereziki attatto, amatxo eta Aneren alde. 5 urte betetzeak ongi ospatzea merezi du, horregatik prestatu merendola goxoa eta ongi pasa Mari Tomasa.

Anima zaitetz!  
oso erraza da  
zoriondu internet  
bidez

[www.ttipi.net](http://www.ttipi.net)

# TTIPI TXARTELArekin BETI IRABAZTEN DA!



**DESKONTUAK**  
**ZOZKETAK**  
**ALDIZKARIA**  
**MUSUTRUK**

Eskatu zurea 948 63 54 58 telefonoan

## ZOZKETAK

ttipi txarteldun guztien artean  
zozketatuko dira sari hauek

522 ALEKO IRABAZLEAK

\* ONDDO TA PUNTO KAMISETA

Elena Mugirol | Elizondo

\* KALOTXA LOTEA

M<sup>a</sup> Jesus Mutuberria | Sunbilla

\* IKASTOLEN ELKARTEA LIBURUA

Eduarne Agirre | Lesaka

\* MARTIKO LOTEA

Maite Maritorea | Elizondo

\* IBAIZABAL LIBURUAK

Eva Olaizola | Elizondo

\* BETAGARRI MUSIKA CDa

Maite Mariezkurrena | Elgorriaga

## ZORIONAK

\* Hilabete bateko epia sariak biltzeko

## TTIPI SASKIA

TTIPI-TTAPAKO MOTXILA

URTAROAK ETA HILAK PUZZLEA

URPERATZE HANDIA LIBURUA

TXAPELA BURUAN TA IBILI MUNDUAN  
KAMISETA

PIRRITX ETA PORROT  
DVD  
TXAPA

LOTEA  
KALOTXA (BERA)  
OPARIAK ETA  
OSAGARRIAK



**KAMISETA 1**  
**ONIN ART**

[www.oninart.com](http://www.oninart.com)



2 LIBURU  
IBAIZABAL  
[www.ibaizabal.com](http://www.ibaizabal.com)



2 SARRERA  
DONOSTIAKO  
AQUARIUMera  
[www.aquariumss.com](http://www.aquariumss.com)

## DESKONTUAK

**FANTXIKE**

%10, 300tik gorako gastuan

**GOIKO**

%10 kopia digitaletan

**intzuri**

%10eko deskontua

**IPARLA**  
kirolak

%8, 300tik gorako gastuan

**IPINGI**

%10, 300tik gorako gastuan



**BIZI**

**Jaita!**

can<sup>+</sup><sub>+</sub>

AURRENARI GIZABIDEZKO BAIKAN